



EDUKIEN AURKIBIDEA.

OROITIDAZKIAREN AURKEZPENA.

1. KAPITULUA. ARAUTZE JARDUERA	2
1.1.- Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea.	2
1.2.- 261/2008 Errege Dekretua, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onesten duena.	5
1.3. ERRUKITASUN PROGRAMA.	7
1.4. LEHIAREN AGINTARITZA BERRIARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA PRESTATZEN.	8
2. KAPITULUA. LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL SISTEMA	11
2.1 LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIA	11
2.2 KIDEAK.	17
2.3 LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAREN ESKUMENAK DEKRETUA ALDATU ONDOREN.	18
2.4.- AUZITEGIAREN OSOKO BILKURAREN EGINKIZUNAK.	19
2.5. AUZITEGIAREN BARNE JARDUNBIDEA.	25
2.6.- LDEA-ren lan planteamendua	26
3. KAPITULUA. 2009AN BURUTUTAKO JARDUERAK	30
1. HELBURUA. ZENBAIT KASURI EKITEKO ETA HAI EK EBAZTEKO GAITASUNA ETA ERAGINKORTASUNA HANDITZEA.	30
2. HELBURUA. GIZA TALDEA ERATZEA.	48
3. HELBURUA. ERAKUNDEENTZAT ETA EKONOMIA ETA GIZARTE ERAGILEENTZAT ERREFERENTZIA IZATEA.	51
4. HELBURUA. GAIAN ADITUA DEN ERAKUNDE GISAKO AINTZATESPENA SENDOTZEA.	55
5. HELBURUA. BESTE AGINTARITZA NAZIONAL, EUROPAR ETA NAZIOARTEKOEKIKO HARREMANAK SENDOTZEA.	61
4. KAPITULUA. LDEA-REN 2009KO AURREKONTUA ETA HAREN EGIKARITZEA.	70
Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Txostena	71



1. KAPITULUA. ARAUTZE JARDUERA

1.1.- LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO UZTAILAREN 3KO 15/2007 LEGEA.

Gorte Nagusiek **Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea** izenpean onartutako erreformak honako arrazoi hauetan du sorburu: lehiaren defentsarako sistema europar eredura egokitzeko beharra (1/2003 EE Araudia, Kontseiluarena, EBTaren 81. eta 82. artikuluen betearazpenari buruzkoa), betearazpen deszentralizatuaren prozesua aintzat hartzeko beharra, eta lehiaren defentsarako sistema burujabeagoa, gardenagoa eta eraginkorragoa lortzeko beharra. Erreformaren alderdi nagusietako bat da Gobernutik burujabea den erakunde bat sortzen duela estatu mailan, Lehiaren Batzorde Nazionala (LBN), hain zuzen, lehengo Lehiaren Defentsarako Zerbitzua eta Auzitegia biltzen dituen. Era berean, Legearen betearazpenean esku hartzen duten organo administratibo eta judizial guztien artean (Autonomia Erkidegoetako agintariak, Europako Batzordea eta merkataritza-arloko epaileak) ezinbesteko koordinazioa eta lankidetzak bermatzeko mekanismoak ezartzen ditu. Legedi berri honek, gainera, testuinguru berri bat eskaintzen du, honako elementu hauetan oinarri hartuta:

Alde batetik, **helburuei** dagokienez, merkatuetan lehia eraginkorra bultzatzea du xede nagusi, honako arrazoi hauengatik:


Lehia askeari esker, bermatu egiten da gure gustu eta beharretara ondoen egokitzen dena aukeratu ahal izango dugula denok, eta produktuen edo zerbitzuen kalitate-prezio erlazorik onena erdietsiko dugula une oro.

Testuinguru lehiakorra pizgarri zaie enpresei, eta beren produktuen eta zerbitzuen kalitatea hobetzera eta beren prezioak doitzera bultzatzen ditu.

Era berean, lehia askeko sistemak enpresa-ekimenak garatu nahi dituzten pertsonen beren proiektuei askatasun osoz heltzea ahalbidetzen die; hala, enpresen eta, ondorioz, enpleguaren sorkuntza errazten dute.

Lehiaren defentsarako agintarien esku-hartzea beharrezkoa da, merkatuek lehiakortasunez jardutea eta beren etekinak gizarte osoari iristea lortuko bada.

Jardunbideei dagokienez, honako hauek dira berrikuntza nagusiak:



Lehiaren defentsarako jardunbideak

DEBEKATUTAKO JOKABIDEAK

LDLaren 1. artikulua debekatu egiten du taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, baldin eta horien helburua merkatuetan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada.

2. artikulua debekatu egiten du enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko egoeraren abusua egitea.

3. artikulua eskumena ematen die agintariei lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten dioten lehia desleialeko egintzak zigortzeko.

Hiru alderdi nagusiri dagozkie debekatutako jokabideetan ezartzen dituen aldaketak: argitu eta sinpletu egiten dira zehapen motak; debekatutako akordioak egoera berezietan baimentzen dituen erregimen batetik lege-salbuespeneko sistema batera igaro da, eta lege-salbuespenaren ondorioak eta “minimis” jokabideen tratamendua argitzen dira.

KONTZENTRAZIO EKONOMIKOEN KONTROLA

Derrigorrezkoa da Lehiaren Batzorde Nazionalari (LBN) kontzentrazio-operazioen berri ematea salmenta-bolumenetan edo merkatu-kuotetan atalase jakin batzuk gainditzen direnean.



Prozedura «sinpletua» zehazten du lehiari eragiteko aukera gutxiago dituztela uste den operazioen kasuetarako.

Malgutu egiten du suspentsioa eragin dezakeen derrigorrezko jakinarazpenen erregimena.

Sendotu egiten du Lehiaren Batzorde Nazionalak kontzentrazioak kontrolatzeko orduan duen eginkizuna, Gobernuaren eginkizunaren kaltetan.

Agintaritza autonomikoek derrigorrezko txosten bat egin ahal izango dute, kontzentrazio ekonomikoei dagokien prozedurako bigarren fasean aurreikusten denez.

LAGUNTZA PUBLIKOAK

LBNk eta autonomia-erkidegoetako agintaritzek laguntzak emateko irizpideak lehiaren ikuspegitik aztertzei aukera izango dute, eta horren ondorioz, txostenak idatzi eta gomendioak eman ahal izango dizkiete. Hori guztia hala izanik ere, Europar Batzordeak ere bere kontrol-sistema izango du, Batasuneko araubidean aurreikusita dagoenez.

TXOSTENAK

Lehiaren arloko agintaritza organo aholkuemailea da lehia defendatzearekin zerikusia duten arloetan.

Oro har, lehiaren baldintzei eragiten dieten araudiei buruzko irizpenak ematen dituzte. Bereziki, honako hauek:

- LDLari edo 1/2002 legeari eginiko aldaketak.
- Merkataritza-gune handiak zabaltzeko proiektuak.
- Kalte-ordainak kuantifikatzeko irizpideak (organo judizial batek adostuko ditu kalte-ordainak).
- Lehiari buruzko txostenak, beren ekimenez zein erakunde publikoek, merkataritza-ganberek, edo sindikatu-, enpresa- eta kontsumitzaile-elkarteek eskatuta, eta ekonomia-sektoreei eta merkatuei buruzko ikerketak eta analisiak, lehia askearen ikuspuntutik.

LEHIA SUSTATZEA

Lehiaren inguruko azterlanak eta ikerlanak sustatzea eta egitea.

Sektoreei buruzko txosten orokorrak egitea.

Arlo publikoaren jardunari buruzko txostenak egitea, eta zehazki esanda, merkatuan benetako lehia egotea oztopatzen duten egoerei buruzkoak, egoera horiek legeak ezartzearen ondoriozkoak direnean.

Administrazio publikoei beren jarduna dela-eta benetako lehiari jartzen dizkioten trabak aldatu edo ezabatzeko proposamenak egitea.



Organo judizialetan administrazioaren ekintzak edo legea baino beheragoko xedapen orokorrak aurkatzea.

1.2.- 261/2008 ERREGE DEKRETUA, LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO ERREGELAMENDUA ONESTEN DUENA.

Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak lehiaren estatu mailako sistema sakonki erreformatzeko prozesua abiarazi zuen. Prozesu horren barruan, 2008an 261/2008 Errege Dekretua, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onesten duena, jarri zen indarrean. Erregelamendu mailako arau hori bi alderdi nagusiz arduratzen da: batetik, lehiaren defentsa arautzen du oro har, eta bestetik, lehiaren defentsaren arloko administrazio-prozesuak.

Lehiaren defentsari modu orokorrean eragiten dioten alderdien artean, Dekretuak honako hauek garatzen ditu erregelamendu bidez:

I.- Garrantzi txikiko jokabideak.

Lehiaren Defentsarako Legeak ezarri egiten du 1., 2. eta 3. artikuluetan jasotzen diren debekuak ez zaizkiela aplikatuko garrantzi txikikoak izategatik lehiari nabarmen eragiteko gai ez diren jokabideei.

Lehiaren Defentsarako Erregelamendua onartzen duen Dekretuak garrantzi txikiko jokabideak zein diren eta kontzeptu horretatik kanpo zein jokabide geratzen diren definitzen du.

Garrantzi txikiko jokabideak merkatu-kuotak aintzat hartuz definitzen dira, horretarako lehenago adierazpena egitea beharrezkoa izan gabe:

- a) Benetako edo izan litezkeen enpresa lehiakideen arteko jokabideak, beren merkatu-kuota bateratuak %10 gainditzen ez duenean kaltetutako merkatu garrantzitsuetan.
- b) Benetakoak edo izan litezkeenak ez diren enpresa lehiakideen arteko jokabideak, bakoitzaren merkatu-kuotak %15 gainditzen ez duenean kaltetutako merkatu garrantzitsuetan.
- c) Lehiakideen edo lehiakideak ez direnen arteko jokabidea den zehaztea posible ez den kasuetan, bakoitzaren %10eko portzentajea aplikatuko da kaltetutako merkatu garrantzitsuetan.
- d) Lehia, erreferentzia-merkatu batean, banatzaile eta hornitzaile ezberdinek ondorioztatutako ondasunak eta zerbitzuak saltzeko erabaki paraleloen ondoriozko metatzeen eraginez murrizten denean, aurreko ataletan finkatutako merkatu-kuoten portzentajea %5era jaitsiko da.



Era berean, garrantzi txikiko kontzeptutik baztertutako jokabideak definitzen ditu, eta gaingiroki adierazten:

Ez dira garrantzi txikikotzat hartuko, zuzenean edo zeharka, modu isolatuan edo enpresa partaideek kontrolatutako beste faktore batzuekin batera, helburu bezala honakoak dituzten lehiakideen arteko jokabideak:

- a) Hirugarrenei produktuen salmenta-preziora finkatzea.
- b) Ekoizpena edo salmentak mugatzea.
- c) Merkatuen edo bezeroen banaketa, baita iruzurrezko eskaintzak ere, edo inportazioen edo esportazioen murrizketa.

Ez dira garrantzi txikikotzat hartuko, zuzenean edo zeharka, modu isolatuan edo enpresa partaideek kontrolatutako beste faktore batzuekin batera, helburu bezala honakoak dituzten lehiakide ez direnen arteko jokabideak:

- a) Eroslea egokitu behar den gutxieneko edo finkatutako birsaltzeko preziora ezartzea.
- b) Hautatzeko banaketa-sare bateko kideek azken erabiltzaileei salmenta aktibo edo pasiboak murriztea.
- c) Elkarrenganako hornidurak murriztea hautatzeko banaketa-sistema berekoak diren banatzaileen artean, eta baita maila komertzial ezberdinetan jarduten duten banatzaileen artean ere.
- d) Iraupen mugagabea edo bost urte baino gehiagokoa duen eskumen ezaren edozein klausula ezartzea.

II.- Kontzentrazio ekonomikoak.

Lehiaren Defentsarako Legeak aurreikusten duen kontrol-prozedura kontzentrazio ekonomikoari aplikatzen zaie, legean bertan ezartzen diren baldintzetako edozein gertatzen denean. Baldintza horiek merkatu-kuotak eta negozio-bolumenak aintzat hartzen dituzte; erregelamenduak ezartzen ditu merkatu-kuota eta negozio-bolumena kalkulatzeko irizpideak.

Merkatu garrantzitsu bateko kontzentrazio eragiketa baten ondoriozko merkatu-kuota eragiketaren parte hartzen duten enpresen merkatuko kuoten batura izango da.

Espainiako negozio-bolumen orokorrak azken kontabilitate-ekitaldian kontzentrazio-eragiketaren parte hartzen duten enpresen jarduketara arrunteei dagozkien zerbitzuen prestaziotik eta produktuen salmentatik ateratzen den kopurua barne hartuko du, hobarien eta salmentei buruzko bestelako murrizketen zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta negozio-bolumenekin zuzenean lotutako gainerako zergak kendu aurretik.

III.- Laguntza publikoak.



Batzorde Nazionalak Espainian banatu diren laguntza publikoei buruzko txosten bat argitaratuko du urtero. Era berean, autonomia-erkidegoetako lehiaren defentsarako organoek administrazio publiko autonomikoez edo tokian tokikoez dagokien eremu geografikoan banatu dituzten laguntza publikoei buruzko txostenak egin ahal izango dituzte.

Administrazio publikoek Lehiaren Batzorde Nazionalak txostenak eta proposamenak egin ahal izateko behar duen informazio guztia eskura jarri beharko du.

IV.- Lehia sustatzea.

Lehiaren Batzorde Nazionalak merkatuetan lehia eraginkorra egotea sustatuko du, merkatuko partaide guztien eta, batez ere, kontsumitzaileen onurarako. Funtzio hori egokiak diren bitartekoen bidez garatuko da eta, batez ere, txostenak, azterlanak, ikerketa-lanak eta proposamenak egitearen bidez.

Era beran, Lehiaren Batzorde Nazionalak arlo horretan proiektuei eta arau-proposamenei buruzko txostenak eta proposamenak egin ahal izango ditu, eta administrazio publikoei igorri ahal izango dizkie bere jardueratik eratorritako lehia eraginkorrari jarritako murrizketak aldatzeko edo kentzeko proposamenak.

Azkenik, erregelamendu mailako arauaren II. Tituluak lehiaren defentsaren inguruko honako prozedura hauek arautzen ditu:

- 1) Debekatutako jokabideen arloko zehapen-prozedura.
- 2) Kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko prozedura.
- 3) Arbitraje-prozedura.
- 4) Jakinarazpen onartzeko prozedura.

Debekatutako jokabideen arloko zehapen-prozeduraren barruan, nabarmendu beharrekoak dira, dakarten berritasunagatik, errukitasun-prozedura eta isuna barkatzekoa edo murriztekoa; prozedurok interesdunak eskaera egiten duenetik isuna barkaturik dagoela ebazten dena arteko tramitazioaren ibilbide osoa ezartzen du.

1.3. ERUKITASUN PROGRAMA.

Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen berrikuntzetako bat lehiaren defentsarako sisteman Estatu Batuetan eta Europar Batasunean jadanik arrakastaz abian jarriak izan direnen moduko errukitasun-programak sartzea izan zen.

Europa mailan, Europako Batzordeak 1996an onartu zuen lehenengoz Errukitasun Programa bat; ekintza arrakastatsua gertatu zen, batasun zein mundu mailako kartel-programak hauteman izanak frogatzen duenez. Batzordeak nabarmendu zuenez, errukitasun-programak garrantzi handikoak dira Lehiaren Agintarien Sarean behar bezalako lankidetzeta gerta dadin. Lehiaren Agintarien Sarea Kontseiluak sustatu zuen,



Tratatuaren 81. eta 82. artikuluetan ezartzen diren lehiarako arauen aplikazioari buruzko 2002ko abenduaren 16ko 1/2003 Erregelamenduaren bidez.

15/2007 Legeak lehen aldiz errukitasun-programa bat edo isuna ordaintzetik salbuestekoa edo kantitatea murriztekoa ezartzen du kartel bateko kide izan diren arren hura antzematen eta jazartzen lagundu dutenentzat. Haren helburua karteleko kideen isiltasun-legea haustea da, karteleko kide baten salaketari esker; kide horri salbuetsi edo murriztu egingo litzaioke kartelean parte hartzeagatik legokiokkeen isuna salaketaren truke. Programa hori 2008ko otsailaren 28tik osoro aplikatzen da, Lehiaren Defentsarako Erregelamenduko 7. ataleko 46-53. artikuluetan ezartzen diren zehaztapenen arabera.

Errukitasun-programa eraginkorrak garatu ahal izateko giltzarrietako bat zera da: identifikatzea zein faktorek eragiten duten enpresek kartelik eratu nahi ez izatea, edo, jadanik kartelik existitzen bada, zein faktorek sustatzen duten kideetako batek salaketa egitea.

Lehen errukitasun-programa Estatu Batuek burutu zuten 1978an; kartela salatzen zuen lehen enpresa soilik salbuesten zuen isuna ordaintzetik programa hark, agintariek jadanik ikerketa abiarazia ez bazuten beti ere. Geroagoko erreformak, 1993koa eta 1999koa, kartelak jazartzeko sistema eraginkor hori osatzera etorri dira.

Errukitasun-programa kartelak antzemateko tresna ahalsua zaie lehiaren defentsarako agintariei, eta ez da ahaztu behar kartelak direla lehiaren aurkako praktika kaltegarrienak.

Errukitasuna LBNari eta lehiaren bestelako agintari autonomikoei kartela antzemateko frogak eskaintzen dizkieten enpresen onerako gerta daiteke, beti ere kartelaren bultzatzaileak izan ez badira eta debekatutako jokabidean esku hartzeari uzten badiote.

Errukitasun-programa irtenbide halako bat gertatzen zaie kartel bateko kide diren enpresei; izan ere, baldintza jakin batzuk betez gero, debekatutako hitzarmenean parte hartzeagatik isuna ordaintzetik salbuetsita gera daitezke, edota murriztu egingo zaie ordaindu beharreko kantitatea.

Errukitasun-programan oso garrantzitsua da enpresentzat errukitasun-eskaerak ahalik eta bizkorren aurkeztea, isuna ordaintzetiko salbuespena lehen enpresari soilik aitortzen zaionez. Salaketa egiten bigarrenak diren enpresei eta hurrengoei isuna murriztuko zaie, proportzio gero eta txikiagoan.

LDEAK informazio-ohar bat kaleratu zuen, gizarte- eta ekonomia-eragile guztiei eta hiritarrei oro har errukitasun-programaren zenbait alderdi praktikoko argitzeko.

1.4. LEHIAREN AGINTARITZA BERRIARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA PRESTATZEN.



2009ko azken hiruhilekoan, LDEAk Lehiaren Euskal Agintaritzaren Lege-proiektu baten zirriborroa lantzeko enkargua jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren eskutik, Ekonomia eta Ogasun Sailaren bitartez, eta delako zirriborroa 2010eko urtarrilaren amaierarako entregatu beharra adierazi zitzaion.

Proiektuaren zirriborroa egin ahal izateko, lehiaren defentsarako arautegiaren azken aldiko ibilbidea aintzat hartu da.

Espainiako Estatu Europako Ekonomia Erkidegoan (gaur egun Europar Batasuna) sartu izanak Lehiaren Defentsarako 16/89 Legea, uztailaren 17koa, sortu beharra ekarri zuen. Lege horretan oinarrituta, estatu mailako bi administrazio-organo espezializatu ezartzen dituen sistema bat taxutu zen, lehia murrizten duten jokabideen aurka egiteko eta kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko. Bi administrazio-organo horiek Lehiaren Defentsarako Zerbitzua eta Auzitegia dira.

Europako Erkidego mailako lehiaren erreformak honako bi ondorio hauek ekarri zituen: Kontseiluaren 139/2004 Erregelamendua (EB), 2004ko urtarrilaren 20koa, enpresen arteko kontzentrazioen kontrolari buruzkoa, eta batez ere, lehia murrizten duten jokabideen aurkako borroka modernizatu duen Kontseiluaren 1/2003 Erregelamendua (EB), 2002ko abenduaren 16koa, Europar Batasuneko Tratatu 81. eta 82. artikuluetan ezartzen diren lehiari buruzko arauen aplikazioari buruzkoa. Europa mailako erreforma horrek Espainiako araudia hartara egokitzea ekarri zuen. Horren emaitza da **Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea**.

15/2007 Legeak Lehiaren Batzorde Nazionala sorrarazi zuen, estatu mailako agintaritza eskudun bakarra, eta lehia murrizten duten jokabideen aurka erabili beharreko prozedurak eguneratu zituen. Era berean, garrantzi berezia eskaini zion lehiaren defentsarako organismoek lehiaren sustapenean betetzen duten egitekoari, izan txostenen, ikerlanen eta gomendioen bitartez, izan kasu bakoitzari dagokion jurisdikzioaren aurrean lege mailatik beheragoko arauen eta merkatuko lehia murrizten duten jokabide administratiboen aurkako errekurtsioa jartzea legitimatzearen bitartez.

15/2007 Legeak sorrarazitako aldaketek eta, bereziki, lehiaren sustapenari eskainitako garrantzi gero eta nabarmenagoak aukera historikoa eskaintzen dute lehiaren euskal organismoen funtzioak modernizatzeko. Lege-proiektuaren zirriborro honen bitartez Lehiaren Euskal Agintaritza eratzen da, eta lehiaren sustapenerako eta defentsarako hainbat funtzio garatu ahal izateko testuinguru instituzional sendoa eskaintzen zaio.

Lehiaren sustapena lehiaren defentsarako funtsezko osagaia da, eta tresna moderno eta eraginkorra zaio merkatuen azterketan eta ikerketan oinarritzen den politika ekonomikoari. Gobernuaren ekinbideentzako informazio eraginkorra eskaintzen du, merkatura sartzeko oztopoak deuseztatzea helburu duten sektorekako legedientzako hobekuntza-iradokizunak egiten ditu, lehiaren aurkako preskripzioak zuzentzen ditu, araudia hobetzen eta aldatzen du, eta lehiaren eta bikaintasunaren kultura zabaltzen du arlo publikoan zein pribatuan.

15/2007 Legeak berebiziko garrantzia eman dio lehiaren sustapenari, eta eskumen zabalak eman dizkie bai Lehiaren Batzorde Nazionalari bai lehiaren organismo



autonomikoei. Lehiaren sustapenaren garrantzia Autonomia Estatutu zenbaitetara iritsi da. Andaluziako Autonomia Estatutuak, 58.1.5. artikuluan, eta Kataluniako Autonomia Estatutuak, 154. artikuluan, autonomia mailako lehiaren sustapenari buruzko eskumen osoa esleitu diote Autonomia Erkidego bakoitzari.

Beste ordenamendu juridiko batzuetan sektore publikoko lehiaren sustapenari ematen zaion garrantziarekin bat eginez, Lege-proiektuaren zirriborro horrek munduko garatuenean artean kokatu nahi ditu Euskadiko administrazio publikoen lehiaren sustapenerako sistema eta gobernu ona. Horretarako, 15/2007 Legeak lehiaren sustapenerako Lehiaren Batzorde Nazionalari esleitzen dizkion egiteko berberak esleitzen zaizkio Lehiaren Euskal Agintaritzari Autonomia Erkidegoaren mailan, hala nola, txostenei eta laguntza publikoei buruzkoak. Era berean, aurrera egiten da arlo honetan, Agintaritzari funtzio berriak emanez: Autonomia Erkidego mailan merkatuetako lehia eraginen bat izan dezaketen proiektu edo proposamen arauemaileei buruzko aginduzko txostenak burutzea, baita zenbait baldintza-agiri eta kontratazio-eredu prestatzea ere. Funtzio horien garapena errazteko eta sustatzeko asmoz, Lege-proiektuaren zirriborroak legitimatu egiten ditu zenbait organismo eta hirugarren interesdun lehia sustatzeko jardunbideak buru ditzaten, eta informazioaren inguruko zenbait betebeharrak ezartzen ditu, bereziki, laguntza publikoei eta kontratu publikoei dagokienez. Era berean, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera-eremua zabaltzen da. Hala, jarduera-eremu horrek Euskal Sektore Publikoaren jardunbideak hartuko ditu barne, baina baita Euskadikoa ez den Sektore Publikoarenak ere, lehia askearen eta merkatu nazionalaren zein Europar Batasunekoaren batasunaren aurka egiten dutenean eta, ondorioz, Autonomia Erkidegoan kokatzen diren enpresei kalte egiten dietenean.

Arbitraje-funtzioa arautzean, 15/2007 Legeak Lehiaren Batzorde Nazionalari dagokionez ezartzen duenarekin bat etorritik, argi eta garbi ezartzen da administrazio publiko ez diren sektore publikoko erakundeek, organismoek eta entitateek arbitrajepera eraman ahal izango dutela burutzen dituzten kontratuen efektuak, betearazpena eta amaiera dela-eta sor litezkeen desadostasunen konponbidea, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 39. artikuluari jarraituz.

Lehiaren Euskal Agintaritzari esleitzen zaizkion funtzio guztien lagungarri, proiektuaren zirriborroak haren ekinbideen publikotasuna, lagundu beharra eta haren funtzioekin zerikusia duten hitzarmenak sinatzeko ahalmena arautzen ditu, eta Euskadiko Parlamentuaren aurrean kontuak ematera behartzen du.



2. KAPITULUA. LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL SISTEMA

2.1 LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIA

JATORRIA

81/2005 Dekretuak, apirilaren 12koak, Lehiaren Defentsarako Euskal Sistemaren oinarriak ezarri zituen. Sistema horrek lehiaren defentsarako estatuko ereduaren zenbait ezaugarri biltzen ditu, Lehiaren Defentsarako uztailaren 17ko 16/1989 Legeak (LDL) ezarritakoarenak, alegia. Lege horretan, debekatutako jokabideak, prozedurak, lehiaren defentsarako organoen osaera eta haien funtzioak jasotzen ziren.

81/2005 Dekretuak bi organismoren esku utzi zuen lehia defendatzeko egitekoa Euskadin: *Lehiaren Defentsarako Zerbitzua (LDEZ)*, batetik, ikerketaz, instrukzioaz eta espedienteen segimenduaz eta zaintzaz arduratzen dena, besteak beste; eta *Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia (LDEA)*, bestetik, debekatutako jokabideen kasuan ebazpen-funtzioak bete eta kontsultaz, babesaz, arbitrajeaz eta lehiaren defentsarako politika sustatzeaz arduratzen dena. LDEZa sistemaren motorea da eta, LDEArekin batera, ezinbesteko osagaia da sistema horrek funtziona dezan eta gara dadin.



Lehiaren Defentsarako Euskal Sistema

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak autonomia osoz jarduten du hierarkiari zein funtzioei dagokienez, eta burujabetasun osoz eta ordenamendu juridikoari men eginez burutzen ditu bere egitekoak. Bi erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa ezinbestekoak dira, baterako funtzioak dituztenez gero.

Bestetik, Konstituzio Auzitegiaren 1999ko azaroaren 11ko epaiak konstituzioaren kontraketat jo zuen Lehiaren Defentsarako uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 4., 7., 10., 11. eta 25 a) eta c) artikuluetan espresuki zein zeharka jasotzen den «nazio-lurralde osoan edo parte batean» klausula. Epai horren arabera, barne-merkataritzaren arloan eskumena duten autonomia-erkidegoei dagokie lehia askeari lotutako gaietan esku hartzea, haiek baimentzea edo zigortzea, autonomia-erkidegoen arteko edo autonomia-erkidegoaren lurraldearen barruko jardueren kasuan.



1999ko azaroaren 11n Konstituzio Auzitegiak emandako epaiaren ondorioz, banatuta geratu ziren lehiaren defentsaren arloko eskumenak; gero, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legea promulgatu zen. Horrenbestez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretua onetsi zen, Autonomia Erkidegoak arlo honetan dituen eskumenak antolaketa-egitura mugatu baten barruan bere gain hartzea ekarri zuena.

2007ko irailaren 1ean Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea jarri zen indarrean, uztailaren 17ko 16/1989 Legea indargabetu zuena. Lege horren xedea lehiaren defentsarako sistema modernizatzea eta hobetzea, Europako eredura egokitzea eta koordinatzeko mekanismoak indartzea da, autonomia-erkidegoetako organo eskudunek nahiz sektoreetako organo arautzaileek araudia aplikatu dezaten.

Legeak aldaketa handiak egin ditu, batetik, lehiaren defentsarako Estatuko organoen osakeran eta horien eginkizunen banaketan —Lehiaren Batzorde Nazionala sortu da, eskumena duen Estatu mailako agintaritza bakarra, orain arte Lehiaren Defentsarako Zerbitzua eta Auzitegia zirenak batzen dituen—, eta bestetik, lehia murrizten duten jokabideen aurka aplikatu daitezkeen prozeduren erregulazioan. Era berean, garrantzi berezia eman zaio lehia sustatzeko zereginari, hala nola txostenak, azterlanak eta gomendioak landuz.

Araudi berriak eragindako aldaketek, bai eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak beren jardunaldian lortutako esperientziak ere, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretua aldatu beharra ekarri zuten, lege-testuinguru berrira egokitzeko, batetik, eta bakoitzaren egitekoak zein diren argitzeko eta arrazionalizatzeko, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren sorrerari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunei buruzko Dekretua aldatzen duen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuan jasotzen denez. Izan ere, Estatuko lege berriak handitu egin du lehiaren defentsarako autonomia-organoen eginkizun kopurua, eta, ondorioz eskumenok modu egokian esleitu behar izan zaizkie arlo horretako euskal organoei, Estatuko legeak ematen dituen jardunbide berrien bitartez lehia aktiboki sustatzen duen funtzionamendu-egitura eraginkorra lortzeko.

Hori dela eta, Auzitegia eta Zerbitzua organo bakarrean ez biltzeko sistema mantendu da, gaur egun bezala, Euskal Administrazioa bere burua antolatzeko gai dela kontuan hartuta. Dena den, bi organo horiek sustapenaren arloan abiarazten dituzten jarduketak koordinatuta egotea aurreikusi da, horrela sistema eraginkorragoa izango delako eta bitartekoak arrazionalizatuago egongo direlako.



LEHIAREN AGINTARITZAK: KOADROA

	L.B.N.	L.D.E.A. Euskadi	L.D.K.A. Katalunia	L.D.G.A. Galizia
ARAU SORTZAILEA	Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea, 12. artikulua	81/2005 Dekretua, apirilaren 12koa, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duena eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituena. (EHAA, 84, 2005705/06). Dekretu hori martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuaren bitartez aldatu da; ondorioz, funtzio berriak esleitu zaizkio LDEZari eta LDEAari.	1/2009 Legea, otsailaren 12koa, Lehiaren Kataluniako Agintaritzari buruzkoa (DOGC, 5321, 2009/02/18).	6/2004 Legea, uztailaren 12koa, Lehiaren Defentsaren Galiziako Organoak Erregulatzekoa (DOG, 141, 2004/07/22).
ESTATUTU JURIDIKOA	Zuzenbide publikoko erakundea (15/2007 Legearen 19. artikulua)	Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzara atxikitako organoa	Administrazio- erakunde autonoma.	Administrazio- erakunde autonoma.



	L.B.N.	L.D.E.A. Euskadi	L.D.K.A. Katalunia	L.D.G.A. Galizia
ERAKUNDE EGITURA	BAKARRA.	DUALA * (Organo ebazleari soilik dagozkion datuak barne hartzen ditu)	BAKARRA.	DUALA.
2009KO AURREKONTUA	13,4 milioi euro	705.821 €	2,05 milioi euro	897.934 €
KIDE KOPURUA	Lehendakaria, lehendakariordea eta 6 kontseilari	3 kide (txandakako lehendakaritza)	Lehendakaria eta bi bokal	3 goi-kargu: lehendakaria eta bi bokal
LEHENDAKARIA REN MAILA	Estatu-idazkari	Zuzendari	Idazkari nagusi	Goi-kargua, kontseilari nagusiaren baliokidea.
BOKALEN MAILA	Zuzendari nagusi	Zuzendari	Kataluniako Generalitatek izendatutako bokalak, arduraldi esklusiborik gabeak.	Goi-karguak. Kontseilariaren baliokidea
IDAZKARI NAGUSIAREN ARDURALDIA	Esklusiboa	Partziala	Esklusiboa	Esklusiboa
TEKNIKARIAK	36 legelari, 36 ekonomista eta beste arlo batzuetako 36 teknikari (ingeniariak, matematikariak ...)	Ekonomista 1 Legelari 1	16 (8 ekonomista, 6 legelari eta bestelako tituludun 2)	Ezezaguna
ADMINISTRARIA K	77	1	4	2 idazkari Gaitu 1 Mendeko 1
EGOITZA	Apartekoa	Gobernua	Apartekoa	Apartekoa



	L.D.M.A. Madrid	L.D.A.A. Aragoi	L.D.G.L.A. GAZTELA ETA LEON	L.D.E.AUZITE GIA EXTREMADU RA
ARAU SORTZAILEA	6/2004 Legea, abenduaren 28koa, Sorrerari buruzkoa. (BOCM, 310, abenduaren 30ekoa).	29/2006 Dekretua, urtarrilaren 24koa. (BOA, 17, 2006ko otsailaren 10ekoa)	15/2009 Dekretua, otsailaren 5ekoa.	2/2005 Legea, ekainaren 24koa. (DOE, 78, 2005eko uztailaren 7koa)
ESTATUTU JURIDIKOA	Zuzenbide publikoko erakundea, Ekonomia eta Ogasun Sailaren mendekoa	Ekonomia, Ogasun eta Enplegu Saileko Politika Ekonomikoaren Zuzendaritzara atxikitako organoa	Kide anitzeko organoa, lehiaren defentsaren arloan funtzioak betetzen dituen, Ekonomian eskumena duen Sailera atxikia.	Kide anitzeko administrazio- organoa, Bigarren Lehendakariord etzako Idazkaritza Nagusira atxikia
ERAKUNDE ANTOLAERA	BAKARRA	DUALA	DUALA	DUALA
2009KO AURREKONTU A	1.827.267 €	2007tik aurrera Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiaren barruan.	Ez du aurrekontu propiorik	Ez du aurrekontu propiorik
KIDE KOPURUA	Lehendakaria Lehendakariorde a 2 bokal Idazkari 1 Zerbitzuetako 15 langile. (guztira 20)	Lehendakaria 4 langile laguntzaile: Idazkari 1 Aholkulari juridiko 1	Lehendakaria 2 bokal eta idazkaria	Lehendakaria 2 bokal.
LEHENDAKA RIAREN MAILA	Sailburuorde	Aragoiko Gobernuak izendatutako lehendakari, arduraldi partzialean	Goi karguak	
BOKALEN MAILA	Goi karguak	Aragoiko Gobernuak	Goi karguak	



	L.D.M.A. Madrid	L.D.A.A. Aragoi	L.D.G.L.A. GAZTELA ETA LEON	L.D.E.AUZITE GIA EXTREMADU RA
		izendatutako bokala, arduraldi partzialean		
IDAZKARI NAGUSIAREN ARDURALDI A	Esklusiboa	Partziala (Langile funtzionarioak)	Saileko funtzionarioa.	Partziala
TEKNIKARIA K	3 teknikari	Auzitegian ez. Lehiaren Defentsarako Zerbitzuan, 3 ekonomilari	Ez du teknikaririk. Laguntza teknikoa Lehiaren Defentsarako Zerbitzutik iristen da.	Aholkulari juridiko bat, Instrukzio Zerbitzukoa.
ADMINISTRA RIAK	5 administrari	Funtzionario laguntzaile arduraldi partzialean 1,	Ez du administraririk. Lehiaren Defentsarako Zerbitzuko langile administrariak egiten dute egin beharrekoa.	
EGOITZA	Apartekoa	Gobernua	Gobernua	Gobernua



Beste organo autonomiko batzuk

Oraingoz lehiaren defentsarako organorik ez duten beste autonomia-erkidego batzuk:

MURTZIA. Ekonomia, Enpresa eta Berrikuntza Saila. Merkataritza eta Artisautza Zuzendaritza Nagusia. 13/2004 Dekretua, otsailaren 13koa, lehiaren defentsarako funtzioak esleitzen dituena eta Lehiaren Defentsarako Eskualdeko Zerbitzua sortzen duena (BORM, 43, 2004/02/21).

KANARIAK. Ekonomia eta Ogasun Saila. Ekonomia eta Ekonomia Gaien Sailburuordetza, Europar Batasunarekin batera. 10/2003 Legea, apirilaren 3koa, lege horren 8.2.c artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako.

ASTURIAS. Ekonomia eta Europako Gaietarako Saila. Ekonomia Zuzendaritza Nagusia.

BALEARRAK. Merkataritza, Industria eta Energia Saila. Merkataritza Zuzendaritza Nagusia.

KANTABRIA. Ekonomia eta Ogasun Saila. Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia.

ERRIOXA. Industria, Berrikuntza eta Enplegu Saila. Merkataritza eta Industria Zuzendaritza Nagusia.

NAFARROA. Ekonomia eta Ogasun Saila Idazkaritza Tekniko Nagusia.

2.2 KIDEAK.

LDEA hiru kidek osatzen dute. Bi urtean behin txandakatu egiten dira hiruren artean, Lehendakari kargua hartzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura hierarkikoan parte hartzen ez duen arren, Ogasun eta Administrazio Publikoaren Sailak eskaintzen dizkion ekonomia-, teknika- eta giza baliabideak ditu erabilgarri. Auzitegia Euskadiko lehiaren defentsarako agintari gisa sendotu dadin eta dagokion Dekretuan esleitzen zaizkion eskumenak bete ahal izan ditzan, bere langileria tekniko eta administratiboa ondo egokitu beharko zaio, kopuruari zein kualifikazioari dagokionez, bere eskumenen edukiak gizarteari eskaini behar dion zerbitzu-funtzioari.

2009. urtean zehar, honako hauek osatu dute Auzitegia:

- Lehendakaria: Javier Berasategi Torices jn.
- Lehendakariordea: Joseba Andoni Bikandi Arana jn.
- Bokala: Juan Luis Crucelegui Gárate jn.

Lehiaren Defentsarako Euskal Sistemaren egitekoak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren barruko unitate espezifiko



batek burutzen ditu. Unitate horrek LDEAri dagozkion independentzia-, zintzotasun- eta konfidentzialtasun-arau berberak bete behar ditu.

Bere ikerketak burutu ahal izateko, LDEZak enpresak beharrezkoa den informazio guztia ematera derrigortzeko eskumena du, eta iragarri gabeko ikuskapenak egin ditzake enpresen egoitza eta lokaletan.

2.3 LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAREN ESKUMENAK DEKRETUA ALDATU ONDOREN.

36/2008 Dekretuak, martxoaren 4koak, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren sorrerari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunei buruzko Dekretua aldatzen duenak seinalatzen duenez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen testuinguruan, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea aplikatzea, honako arlo hauetan:

- a) Lege horren 1., 2. eta 3. artikuluetan ezarritako jokabideak xede hartzen dituzten prozeduretan. Horiei dagokienez, hain zuzen, ondoko ahalmenak izango ditu: zehapenak ezartzekoa, berak emandako ebazpenetan ezartzen diren betebeharren gainean hertsatze-isunak jartzekoa, kautela-neurriak hartzekoa, nahitaezko betearazpenetarako neurriak hartzekoa eta isunak ordaintzetik salbuetsi edo horien zenbatekoa murriztekoa.
- b) Zuzenbidezko nahiz ekitateko arbitrajeen ebazpenean, gai honi buruzko indarreko legeriak ezarritakoaren arabera.
- c) Dekretu honetan ezartzen diren kontsulta-funtzioetan, eta orobat lehia sustatzea helburu duten eginkizunak betearazteko azterlanak, txostenak edo gomendioak ematean.
- d) Lehiaren defentsari buruzko indarreko araudiarekin bat etorritz bere gain har ditzakeen gainerako eskumenetan.

Auzitegiak, oro har, prozeduretan ebazpenak emateko zeregina izaten jarraituko du, eta Zerbitzuak jarraituko du ebazpenoi bide ematen, baina sistema arrazionalagoa eta eraginkorragoa izateko helburu hori betetze aldera, euskal organo biek koordinatuta eta aurretik planifikatuta jardun behar dute, prozedurak ebaztea edo instrukzioak egitea (hurrenez hurren) ez diren beste eginkizun batzuk ere eginez.

Horrela, Auzitegiak ondoko eginkizunak izango ditu, besteak beste, ebazteko eginkizunetatik kanpokoen arteko adierazgarrienetako batzuk baino ez aipatzeko: EAEko Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntza publikoei buruzko txostenak egitea, eta kontzentrazioen prozedurako bigarren faseko zein merkataritza-gune handientzako lizentziak emateko prozedurei buruzko aginduzko txostenak egitea.



Zerbitzuak, bestalde, otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 5. artikuluko laugarren idatz-zatian ezartzen den aginduzko txostena egin beharko du, besteak beste, instrukzioaren fasean halakorik eskatzen denean; eta Estatuko Legeko 17.2.d) artikuluan ezartzen den txosten ez-loteslea egiteko eskatu beharko die sektoreetako organo arautzaileei. Hau da, esleitu zaion instrukzio-funtzio orokorra osatzen duten beste zenbait eginkizun bete beharko ditu. Bistan denez, eginkizunen esleipen zorrotza, organo bakoitzaren zereginak ebazpenera eta instrukziora hurrenez hurren mugatzen duena, saihestu nahi izan da. Eginkizunak esleitzeko hobetsi den sistemak, aitzitik, Euskadin lehiaren defentsan esku hartzen duten bi organoetako bakoitzaren garrantzi objektiboa abiapuntu hartuta eta lehia modu eraginkorrean sustatu ahal izateko planifikazioa ezinbestekoa dela jabetuta, ahalbidetu egiten die lehiaren defentsarako euskal organoei Lehiaren Defentsari buruzko Estatuko Lege berriak ezarri dizkien eginkizunak eta betebeharrak fidagarritasunez garatzeko gai izatea.

2.4.- AUZITEGIAREN OSOKO BILKURAREN EGINKIZUNAK.

- a) Lege horren 1., 2. eta 3. artikuluetan ezarritako jokabideak xede hartzen dituzten prozeduretan hitzarmenak eta ebazpenak egitea. Horiei dagokienez, hain zuzen, ondoko ahalmenak izango ditu: zehapenak ezartzekoa, berak emandako ebazpenetan ezartzen diren betebeharren gainean hertsatze-isunak jartzekoa, kautela-neurriak hartzekoa, nahitaezko betearazpenetarako neurriak hartzekoa eta isunak ordaintzetik salbuetsi edo horien zenbatekoa murriztekoa.
- b) Arlo honi buruzko indarreko legeria aplikatuz operadore ekonomikoek haren gain uzten dituzten zuzenbidezko nahiz ekitatezko arbitraje-prozedurak ebaztea.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek dagozkien lurraldeetan banatzen dituzten laguntza publikoei buruzko txostenak egitea.
- d) Kontzentrazio ekonomikoen prozedurako bigarren faserako ezartzen den aginduzko txostena egitea.
- e) Europar Batasunaren Tratatuako 81. eta 82. artikuluetan eta Lehiaren Defentsarako Legeko 1., 2. eta 3. artikuluetan jasotzen diren jokabideei buruzko aginduzko txosten ez-loteslea egitea, ebazpen-fasean eskatzen denean; baldin eta jokaerok, erkidegoaz gaindiko esparrua edo Estatuko merkatu osoa ukituz, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eragin nabarmena badute.
- f) Araudiak ezartzen duen kasu guztietan txostenak egitea.
- g) Eskumeneko organoei uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1. eta 2. artikuluen aplikazioarekin zerikusia duten alderdiei buruzko informazioa ematea, Prozedura Zibilaren Legean ezarritakoari jarraituz.
- h) Eskudun organo judizialak hala eskatzen dionean, uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1., 2. eta 3. artikuluetan ezartzen diren jokabideen egileek horien



ondoriozko kalteren bat izan duten salatzaillei eta hirugarrenei ordaindu behar dizkien kalte-ordainak zenbatzeko irizpideei buruzko irizpena ematea.

- i) Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 36/2008 Dekretuko 15. artikuluan jasotzen diren errekurtsioak ebaztea.
- j) Uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 54. artikuluan ezartzen diren kautela-neurriak hartzea.
- k) Barne-arautegia prestatzea, administrazio-jarduna ezartzeko eta zerbitzuen antolamendua zehazteko.
- l) Auzitegiko Idazkaria izendatzea.
- m) Lehendakariaren eta bokalen errefusatzek, bateraezintasunak eta diziplina-zentzarazpenak ebaztea eta beren balizko ezgaitasuna edo ez-betetze larriak balioestea.
- n) Lehiaren defentsa dela-eta, egiten zaizkien galderei erantzutea, galdegilea Eusko Legebiltzarra izan, Eusko Jaurlaritza, Eusko Jaurlaritzako sailak, Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-korporazioak, beste administrazio publiko batzuk, eta Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ganberak, lanbide-elkargoak, enpresa-elkarteak, sindikatuak edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak.
- ñ) Lehiaren Batzorde Nazionalari prozedura amaitzen duten erabakien eta ebazpenen berri ematea, otsailaren 21eko 1/2002 Legeko 5-3. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- o) Lehia eraginkorra sustatzea, zenbait sustapen-jardunbideren bitartez.
- p) Urteroko oroitidazkia egitea.
- q) Aurrekontuaren proposamena prestatzea.

Eginkizun horiek beste modu honetan sailka daitezke:

1. Ebazpen-funtzioa

1.1. Kolusiozko jokabideak

1.1.1. Hitzarmen horizontalak

1.1.2. Hitzarmen bertikalak

1.2. Nagusitasunezko egoeraren abusuzko jokabideak

1.3.

2. Kontsulta-funtzioa

2.1. Merkataritza-guneen lizentziei buruzko txostenak



- 2.2. Norberaren jarduerari buruzko txostenak
- 2.3. Beste erakunde eta eragile batzuek eskatutako txostenak
- 2.4. Lehiaren Batzorde Nazionalak eskatutako txostenak
- 2.5. Sektore publikoko lehiari buruzko txostenak
 - 2.5.1. Kontratu publikoak
 - 2.5.2. Laguntza publikoak

3. Zaintza-funtzioa

- 3.1. LDEAri ikerketa-prozedurak eskatzea
- 3.2. Eusko Jaurlaritzari edo Foru Aldundiei proposamenak egitea

4. Sustapen-, dibulgazio- eta zabalkunde-funtzioa

5. Arbitraje-funtzioa

Lehiari buruzko legedi berriak LDEAren jatorrizko funtzioak zabaldu ditu; izan ere, koadroan adierazi denez, arbitraje-arloak ere barne hartzen ditu orain.

1. Ebazpen-funtzioa

Auzitegiak zigortze- eta hertsatze-isunak balia ditzake, baita agindeiak eta kalte-galerak konpentsatzeko prozedurak ere.

Horrek guztiak honakoa izango du xede:

- Lehenik eta behin, lehia galaraztea, mugatzea edo faltsutzea eragiten duten edo eragin dezaketen hitzarmen, erabaki edo gomendio kolektibo, edo adostutako praktika zein paraleloan jakinaren gainean burututako praktika oro debekatzea.
- Bigarrenik, neurritz gaineko balizko ustiaketak debekatzea, enpresen nagusitasunezko posizioari zor zaizkionak, nahiz beren jarduera burutu ahal izateko aukera baliokiderik ez duten beste enpresa, bezero eta hornitzaileen ekonomia-mendekotasunezko posizioari zor zaizkionak.
- Azkenik, ekintza desleialen eraginez lehia askea faltsutu ez dadila zaindu behar du Auzitegiak.

Zigor-espedienteak

1. Kolusiozko jokabideak (Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua).

- 1.1. Hitzarmen horizontalak
- 1.2. Hitzarmen bertikalak

2. Nagusitasunezko egoeraren abusuzko jokabideak (2. artikulua).

3. Portaera desleialak (3. artikulua). Kolusiozko jokabideen artean hitzarmen horizontalak eta bertikalak daude.



2. Kontsulta-funtzioa

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak lehiaren defentsaren inguruko txostenak prestatzen ditu, bere ekimenez zein beste erakunderen batek eskatuta, hala nola Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Jaurlaritzako Sailek, Foru Aldundiek, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-korporazioek, beste administrazio publiko batzuek, merkataritza-ganberek, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-elkarteek, sindikatuek edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek eskatuta.

LDEAk honako txosten mota hauek egin ditzake:

- **Merkataritza-gune handiak ezartzeko, handitzeko edo aldatzeko lizentziei buruzko** aginduzko **txosten** ez-lotesleak, merkataritza-gune handiak ezarri, aldatu eta handitzeko martxoaren 27ko 58/2001 Dekretua aldatzen duen azaroaren 28ko 244/2006 Dekretuaren 7.3. artikuluan jasotzen denez.
- **Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren beraren jarduerari buruzko txostenak**, bere ekimenez zein Eusko Jaurlaritzak eskatuta, bai eta sektore ekonomikoak eta merkatuak lehia askearen ikuspuntutik aztertzen dituzten ikerketak eta analisiak ere, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 6.c) artikulua ezartzen duenez.
- **Eusko Legebiltzarrak**, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Jaurlaritzako Sailek, beste administrazio publiko batzuek, merkataritza-ganberek, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-elkarteek, sindikatuek edo kontsumitzaileen elkarteek **eskatutako txostenak**, martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuaren 6.n) artikuluan ezartzen denez.
- Txosten arauemaileak.
- **Merkatuei** buruzko txostenak.
- **Lehiaren Batzorde Nazionalak eskatutako** aginduzko **txosten** ez-lotesleak, erkidegoaz gaindiko esparrua edo Estatuako merkatu osoa ukitu eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eragin nabarmena duten jokabideei buruzkoak. Jokaerok honelakoak izan daitezke:
 - Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1., 2. eta 3. artikuluen aurkako jarduerak.
 - Europar Batasunaren Tratatuaren 81. eta 82. artikuluen aurkako jarduerak, eta
 - Bigarren fasean dauden kontzentrazio-eragiketak, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen



koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen **5.4. artikuluan**, koordinazio-mekanismoei buruzkoan, ezartzen denez.

- **Sektore publikoko lehiaren** sustapenari buruzko txostenak, kontratu publikoei dagokienez (15/2007 Legearen 13.2. eta 26.1.c artikulua) zein laguntza publikoei dagokienez (11.5. artikulua).

3. Zaintza-funtzioa

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak merkatuen funtzionamendua zaintzeko funtzioa du. Funtzio hori Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren bitartez burutzen du, ikerketak abia ditzala eska diezaiokeenez. Horrez gain, proposamen arrazoituak egin diezazkieke Eusko Jaurlaritzari edo Foru Aldundiei, kasu jakin zenbaitetan lege-arauen edo laguntza publikoen ondoriozkoak izanik ere lehia murrizten duten egoerak alda edo desagerraraz ditzatela eskatzeko.

4. Lehiaren politika sustatzeko, dibulgatzeko eta zabaltzeko funtzioa

Auzitegiak, halaber, eskura dituen baliabide guztiak erabilia euskal gizartean lehiaren kultura zabaltzen eta gai horri buruzko ezagutza eta gaitasunak garatzen laguntzeko betebeharra ere badu. Egiteko horrek merkatuen funtzionamendu eraginkorra bultzatzea izango du helburu, eta, ondorioz, ekonomiaren produktibitatea hobetzen eta Euskadiren garapen ekonomiko eta soziala ziurtatzen laguntzea.

Lehia sustatzeko funtzio hori honako ekintza hauen bitartez egikaritzen da:

- Lehiaren arloko azterlanak eta ikerlanak sustatuz eta eginez.
- Sektoreei buruzko txosten orokorrak eginez.
- Sektore publikoaren jardunari buruzko txostenak eginez, eta zehazki lege-mailako arauak aplikatzearen ondorioz merkatuetan lehia eraginkorra mantentzea eragozten duten egoerei buruzko txostenak eginez.
- Administrazio publikoei beren jarduna dela-eta benetako lehiari jartzen dizkioten trabak aldatu edo ezabatzeko proposamenak eginez.
- Organo judizialetan administrazioaren ekintzak edo legea baino beheragoko xedapen orokorrak aurkatuz.

Lehiaren sustapenerako sistemak hiru arlotan burutzen du merkatuko esku-hartze publikoa:

Behe mailako legeak eta arauak.

Laguntza publikoak.

Kontratu publikoak.

1.- Lehiaren aurkako legeak eta arauak



Lehiaren Defentsarako Legea lege baten arabera ezarriak izan ez diren lehiaren aurkako jokabide guztiei aplika dakieke, EB-Tren eta haren zuzenbide pribatuaren aplikazioaren kaltetan izan gabe. Erkidegoko Zuzenbidearen lehentasunaren eta zuzeneko efektuaren printzipioei jarraiki, enpresek EB-Tren 81. eta 82. artikuluetara egokitu beharko dute beren jokabidea. EB-Tren 10. artikulua EBT eta hartatik eratorzen den zuzenbidean leialki esku hartzera behartzen ditu estatu kideak, eta beraz ezin dute haren xedeak arriskuan jarriko dituen araurik hartu ez ekintzarik burutu.

Lehiaren agintariak lehia sustatzeko burutzen duten jarduerak eragin ezberdina du legeen eta maila baxuagoko arauen kasuan. Legeen kasuan txostenak eta gomendioak egin ditzakete. Maila baxuagoko arauen kasuan, txostenak eta gomendioak egiteaz gain, agintariak, beren jarduera-esparruaren barruan, administrazio publikoen jardueren aurkako helegiteak aurkez ditzakete jurisdikzio eskudunaren aurrean.

2.- Laguntza publikoak

Espanian laguntzen kontrolerako sistema LDLren 11. artikulua eta Lehiaren Defentsarako Araudiaren 7. eta 8. artikuluek osatzen dute.

Lehiaren agintariak, beren ekimenez zein administrazio publikoek eskatuta, dagokien lurralde-eremuan administrazio autonomikoek eta tokikoek emandako laguntza publikoak aztertu ahal izango dituzte, eta lehia eraginkor mantentzea xede duten txostenak eta aholkuak egin ahal izango dituzte. (11.5. artikulua)

Hiru laguntza mota bereizten dira:

Jakinarazitako laguntzak.

Salbuespen-araudiek beren gain hartzen dituzten laguntzak.

Laguntza ilegalak.

3.- Kontratu publikoak

Europar Batasunaren kontratuen esleipenak Europar Batasunaren Tratatuaren eta haren araudiaren (zuzentarauak eta erregelamenduak) printzipioei men egin behar die.

Espainiako estatuan ez dago kontratazio publikorako agentziarik, ezta kontratu publikoen arloan espezializatutako instantzia baten aurrean egin beharreko errekurtsorik ere.

Lehiaren Defentsarako Legearen arabera, lehiaren agintariak aholku eman diezaiekete kontratazio-organoei, eta gomendioak eta administrazio-ekintzak deuseztatzeko errekurtsio judizialak erabil ditzakete kontratazio publikoa kontrolatzeko. 12.3. eta 13.2. artikuluei esker, lehiaren agintariak errekurtsioa jar dezakete Sektore Publikoko Kontratuen Legearen mendeko diren lizitazioen, behin betiko esleipenen eta sektore publikoko organoen kontratuen aurka.

5. Arbitraje-funtzioa.



Zuzenbidezko nahiz ekitateko arbitrajeak ebatziko ditu Auzitegiak, gai honi buruzko indarreko legeriak ezarritakoaren arabera.

2.5. AUZITEGIAREN BARNE JARDUNBIDEA.

Lehen fase batean, barne-antolaeraren prozesuetarako beharrezko pausoak eman ziren, eta erabateko kalitatean oinarritzen den antolaera baterako funtsak ezarri ziren.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak Barne Araubidea landu eta onetsi zuen Osoko Bilkuran aho batez 2007ko ekainaren 18an, bere eginkizunen jardun-eremua zehazteko eta bere burua antolatzekeo legeak eskaintzen dizkion ahalmenak erabiliz.

Araubide horren bitartez, funtzionamendu egokirako ezinbestekoak diren elementuak antolatzekeo eta argitzekeo tresna sinple, erabilgarri eta nahikoa erdietsi nahi izan zen; tresna horrek barne esparrua (zentzu hertsian) hartuko zuen bere gain, baina baita Auzitegiarekin harremanetan aritzekeoak ziren organo instrukzio-egileekiko eta partikularrekiko harremanak ere.

Irailaren 1ean Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 lege berria, uztailaren 3koa, indarrean sartu zenez, eta 16/1989 Legea, uztailaren 17koa, Lehia Defendatzekoa eraberritu zuenez, Barne Araudia lege berriaren edukietara berregokitu behar izan zen.

Araudi berriaren eta orobat LDEAk eta LDEZk beren funtzionamenduan zehar metatutako esperientziaren ondorioz gertatutako aldaketek 81/2005 Dekretua, apirilaren 12koa, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituena aldatu beharra eragin dute, arau-esparru berrira egokitzeko eta haietako bakoitzak bete beharreko eginkizunak argitzekeo eta arrazionalizatzeko. Horren emaitza 36/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, da.

Horrez gain, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2007ko abenduaren 27an, Euskal Sozialistak taldeak Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren legezko sorrerari buruz eginiko legez besteko proposamenaren inguruko eztabaidaren ondoren egindako saioan, delako proposamena onartu zuen, testu honen arabera:

“Eusko Legebiltzarrak Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren jardun-eremua ebaluatzekeo eta aztertzekeo eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, 2008ko ekainaren 30a aurretik lege-proiektu bat bidal dezan Eusko Legebiltzarrera, zeinak izaera juridikoa duen organo gisa arautuko baitu delako auzitegia, eta berriki Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, onetsi izanak sorrarazten duen egoerara egokituko baitu”.

Osoko Bilkuran, Euzko Abertzaleak, Eusko Alkartasuna, Ezker Batua Berdeak, Popularrak eta Sozialistak taldeek Sozialistek Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren legezko sorrerari buruz eginiko legez besteko proposamenaren zuzenketa transakzionala erdietsi zuten.



Araudien aldaketa horiek (Lehia Defendatzeko 16/1989 Legea, uztailaren 17koa, eraldatzera etorri zen 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, batetik; Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren erreforma, martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuan adierazia, bestetik) eta orobat Lehiaren Defentsarako Euskal Agintaritza sortuko duen lege-proiektu bat egiteko Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eginiko enkarguak atzeratu egin dute 2007ko ekainaren 18an LDEAren Osoko Bilkurak aho batez onartutako Barne Araudia gaur egungo legedira egokitzeko lana.

Gaur egun, Euskadin lehiaren defentsaz arduratzen den egungo antolakuntza-sistema gidatuko duen arau-esparru berria prestatzen ari da; behin onartuta, antolaera berri horren funtzionamendurako Barne Araudia landuko da.

2.6.- LDEA-REN LAN PLANTEAMENDUA

PLAN ESTRATEGIKOA

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, esleitu zaizkion eginkizunei eta eskumenei dagokienez, honako hauek ditu **helburu** epe ertain eta luzean:

Kontsumitzaile, enpresa eta gizarte osoarentzat **kalitatezko zerbitzu izatea**, merkatuaren eta lehia askearen funtzionamendu hobe eta eraginkorrago baten alde lan egiten duena, sistema sozio-ekonomikoa herritar guztien onerako dinamiza dadin.

Lehia sustatzeko arduran euskal gizarte osoari laguntzea eta **erreferentzia bihurtzea**, Estatu eta Europar Batasuneko lehiaren defentsarako gainerako erakundeekin batera.

Profesionaltasunaren eta independentziaren eredu izatea, kasuak zorrotasun handienaz tramitatuz eta esleitu zaizkion baliabideak legedian ezartzen diren xedeak erdiesteko eraginkortasun handienaz erabiliz.

Hiru printzipio horiek zuzenduko dute haren jardunbidea. Urteko ekintzak eta kudeaketa-planak gidatuko dituzten ardatzak dira, eta Auzitegiaren jarduera osoro eta sistematikoki monitorizatzen lagunduko dute.



LDEAren planteamendu estrategikoa.

Auzitegiak bost balio hartzen ditu erreferentzia-puntutzat. Balio horiek bere jardunaren eta kudeaketa-ereduaren bereizgarri bihur daitezela espero du, barruan zein kanpoan.

GARDENTASUNA. Auzitegiak bere helburuen, irizpideen eta jardunbideen berri emango dio sistematikoki gizarteari. Gardentasun, gainera, gizartearekiko konpromisoa ez ezik, erakundeko langileekiko, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta Auzitegiarekin zuzenean zein zeharka harremanetan jartzen den beste edozein estamenturekiko konpromisoa ere bada.

PROFESIONALITASUNA. LDEAren nortasuna ondo, zorroztasunez eta sendo funtsatutako lanaren irizpideak oinarri hartuta eraikitzea. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren laguntzaz, Auzitegiak pertsonen talentua kalitatezko zerbitzu bihur dadila sustatuko du, eta bere kide guztien formazio tekniko jarraitu eta eguneratua bultzatuko du.

INDEPENDENTZIA. Auzitegia ez da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren egitura hierarkikoaren parte; administrazio autonomikotik independentea da, bere jardueri eta eskumenen garapenari dagokienez, eta lehiaren arloan legediak unean-unean seinalatzen duenaren arabera soilik jokatuko du.

ERAGINKORTASUNA. Legediak seinalatzen dituen helburuak iristea, eta lehia aske bideragarriaren egiazko hobekuntzan aurrera egitea, kasu garrantzitsuen gaineko ebazpena emanez.

KONFIANTZA. Auzitegiaren jarduna nabarmendu behar duten balioetako bat konfiantza transmititzeko gaitasuna da. Konfiantza horri esker, harremanak, hitzarmenak eta konexio-bideak erraztuko dira Auzitegiaren eta lehiaren sisteman esku hartzen duten eragile nagusien artean, izan eragile horiek administrazio publikokoak,



zein enpresarien eta profesionalen elkarteak, edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak.

Helburu estrategikoak Auzitegiaren epe luzerako kudeaketaren oinarritzko erreferentzia dira. Denboran zehar bete beharreko helburuak dira; beren izaera eta ikuspegiarekin duten zerikusia dela-eta, epe luzekoak dira, eta urte askoan izango dira erakundearen jardunaren ardura.

Honako helburu estrategiko hauek aukeratu dira:

HOBETU	Egiaz eta eraginkorkiro hobetu lehia librearen funtzionamentua eta merkatua euskal gizartean, bultzada izan dakion produktibitate globalari eta garapen ekonomikoari.
HEDATU	Euskal gizartean hedatu lehiaren kultura, agente guztiek har dezaten guztien mesederako faktoretzat.
EZAGUTU	Lehiaren gaiari zaionez, ezagutza eta ahalmenak garatu euskal agente sozial, ekonomiko eta intsituzionalen artean.

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAREN HELBURUAK ETA LAN-PLANTEAMENDUA

LDEAren ibiliari so eginez gero, ohartuko gara lehiaren defentsarako organo honi dagozkion eginkizunen berri behar bezala emateko oinarriak ezarrita daudela jada. Auzitegiaren jardunaren lehentasunezko helburuetako bat Auzitegia bera Euskal Autonomia Erkidegoan aurkeztea eta proiektio sozialaz janztea da, eragile ekonomikoek lehia askearen alde diharduen organo horren eginkizunak ezagut ditzaten eta ikus dezaten profesionaltasunez, zorroztasunez, independentzia osoz eta lehiaren defentsari buruzko legediarekiko eta, funtsean, ordenamendu juridikoarekiko erabateko begirunez diharduen erakundea dela.

Printzipio horiek dira Auzitegiaren jarduna gidatu dutenak. **2009ko gure kudeaketa-helburuak** oinarri horietan funtsatzen dira.

Helburuok, zehazki, honetan dautza:

1. **Jarduteko ahalmena eta eraginkortasuna handitzea, ebatzi beharreko gero eta kasu gehiagori erantzun ahal izateko.**
2. **Giza taldea eratzea.**
3. **Erakundeentzat eta ekonomia- eta gizarte-eragileentzat erreferentzia bihurtzea.**
4. **Gaian aditua den erakunde gisako aintzatespena sendotzea.**



5. Beste agintaritza nazional eta nazioartekoekiko harremanak sendotzea.

Garatu beharreko **LAN PLANA**, a priori, zenbait lan-arlotan zehaztu zen:

- 1. ARLOA. Lanbide liberalak.**
- 2. ARLOA. Hitzarmen kolektiboak.**
- 3. ARLOA. Merkataritza-banaketa.**
- 4. ARLOA. Kontratazio publikoa.**



3. KAPITULUA. 2009AN BURUTUTAKO JARDUERAK

2009. urtean zehar, Auzitegiaren ibilbideko laugarrenean beraz, ekonomia- eta gizarte-eragile gehienek gero eta gehiago aintzatesten dute Auzitegia Euskadiko merkatuan lehia askearen funtzionamenduarekiko errespetu ahalik eta handiena bermatzeaz arduratzen den organo gisa.

Burutara eraman diren ekintzak euskal gizarteko erakunde, eragile eta organismo adierazgarriekin batera egin dira kasurik gehienetan.

Ekitaldi honetan zehar Auzitegiaren jarduna denik eta ondoen burutu ahal izateko beharrezkoak diren giza ahalmenen eta ahalmen teknikoen egokitzapenean sakondu eta hobekuntzak egin dira.

Hona hemen burutu diren jarduera nagusiak, ezarritako kudeaketa-helburuen arabera sailkatuta:

1. HELBURUA. ZENBAIT KASURI EKITEKO ETA HAI EKIDARTEKO GAITASUNA ETA ERAGINKORTASUNA HANDITZEA.

- A) Isunak barkatzeko edo murrizteko ekintzen edo programen eskaria egiten duten enpresentzat konfiantzazko eta segurtasun juridikoko ingurumari bat gauzatzea.**

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO OTSAILAREN 2AN OSOKO BILKURAN 07/2008 TKI ESPEDIENTEAZ EMANDAKO EBAZPENA

Salatzailea: J.R.B.Z.k, TKI enpresaren ordezkari gisa.
Salatutakoa: Administrazio Publikoa.

Salaketa honetan datza:

Zenbait enpresa-proiektutarako laguntza publikoak eskatu zituen (SUSTATU, EKINTZAILE eta SUSTATU BIDEBERRI deialdiak), eta ukatu egin zitzaizkion, bidegabeki, bere ustez.

Salatzaileak SUSTATU eta EKINTZAILE laguntza-programetan Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko den BEAZ S.A. Sozietate Publikoaren industria-berrikuntzako edo oinarri teknologiko aurreratuko proiektuetarako aurkeztu duen enpresa-proiektuari dagokionez, lehiaren defentsarako estatu mailako organoek haren eskaria ezetsi zuten, eta espedientea artxibatzea proposatu zen.

Salatzaileak, orduan, espedientea hastea eskatu zuen Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea aplikatzeak dakarren eskumen-eremu berriaren itzalpean.

LDEZk bidalitako espedienteak dakarren dokumentazioa aztertuta, Auzitegiak ulertu



zuen proiektuak hautatzeko prozeduraren eremuan kokatzen direla salaturiko gertaerak, eta horretarako eskumena dutela herri-administrazioaren hainbat mailak. Izan ere, administrazioako mailek ezin izan dezakete itzalperik eremu honetan, eta ez da antzeman Lehiaren Defentsarako Legearen manuetan ezarritakoa hautsi izanaren zantzurik.

Hori guztia dela-eta, zigor-espeditentea ez hastea eta aurkezturiko salaketa artxibatzea erabaki da.

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO OTSAILAREN 2AN OSOKO BILKURAN 07/2008 MUTUA MADRILEÑA ESPEDIENTEAZ EMANDAKO EBAZPENA.

Salatzailea: Bizkaiko Kontzesionarioen Elkarteak.
Salatutakoa: Mutua Madrileña Automovilista.

Salaketa honetan datza:

Mutua Madrileña Automovilistak (Mutua Madrileñak) lehia murrizteko buruturiko ustezko jokabideak salatu ziren, hain zuzen ere prezioak ez negoziatzea eta Mutua Madrileñak Bizkaiko Kontzesionarioen Elkarteko (BKEko) kontzesionarioen tailer ofizialei tarifak inposatzea.

Espeditentea aztertuta, Mutua Madrileña enpresak izaniko jokabidea ez zen lehia murrizteko modukoa, haren helburua tailer-sare batekin harremanak ezartzea baitzen, eta tailer horiek onartu egin baitzituzten kontratuan aurrez ezarritako zerbitzuak, hain zuzen baldintza ekonomiko eta konponketak egiteko denbora baldintza jakin batzuetan Baldintzoi esker, prezio lehiakorrei eutsi ahal izango zitzaizen bezeroei kobratzen zizkieten primetan eta polizetan. Aurreko ebazpenetako batean argudiatzen zenez, “lehiaren arauekin bat datorren jokabidea da, kontsumitzaileen eskaria aintzat hartzeko merkatuaren lehiaren funtzionamendua bultzatzen duena”. (LDAREN 1992ko uztailearen 30eko ebazpena, 309/91 esp., 13. or.).

Bestalde, enpresak automobilen aseguruaren merkatuan zuen posizioa ez zen nagusia EAAREN lurraldean, espeditentean agertzen ziren datuetatik ondoriozta zitekeenez. Hortaz, salaturiko aseguru-etxeak eskaturiko baldintzekin bat ez zetozen enpresek aukera zuten merkatuan lehiari ari diren beste aseguru-etxe batzuek zuzendutako beste eskaintza batzuetara jotzeko.

Horrenbestez, salaturiko enpresaren jardunak argi eta garbi lehiaren aldeko ondorioak zituela iritzi zion Auzitegiak, baita merkatuan eraginkortasuna eragiten zuela ere, automobilen aseguru-polizen prezioei eustea ahalbidetzen baitzuen, eta horrek zuzenean baitakarkio mesedea kontsumitzaileari, herritarren poltsikoetan eragin handia duen eta gizartean oso zabaldua dagoen zerbitzu baten kontratazioan.

Hala, bada, Auzitegi honek zigor-prozedurarik ez egitea eta Bizkaiko Kontzesionarioen Elkarteak Mutua Madrileña Automovilistaren kontra aurkezturiko salaketaren ondorioz jarraituriko jarduketak artxibatzea erabaki zuen, Lehiaren Defentsari buruzko Legea hautsi izanaren gaineko zantzurik ez zegoela iritzita.



LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO MAIATZAREN 20AN OSOKO BILKURAN 09/2008 ADEBI ESPEDIENTEAZ EGINIKO EBAZPENA.

Salatzailea: Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak abiarazitako Ikerketa Erreserbatua.

Salatutakoa: Bizkaiko Hortzetako Elkarte (ADEBI)

Salaketa honetan datza:

IMQk 2005eko urtarriletik aurrera komertzializatzekoa zuen Hortz Plana zela-eta, ADEBI elkartearen jokabidea izan zen erreklamazio-idazki bat bidaltzea Bizkaiko Odontologoaren eta Estomatologoaren elkargo ofizialari, eskatzeko bidal ziezazkiela idazki batzuk egoeraren berri emateko Lehiaren Defentsarako Auzitegiari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Osasun Ministerioari, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eta Odontologo eta Estomatologoaren Kontseilu Orokorrari.

Idazkietako batek ADEBIk Elkargoari eginiko erreklamazioa jasotzen du.

Gertaera horiek aintzat hartuta, Lehiaren Defentsarako Zuzendari Nagusiak erabaki zuen Elkargoak eta ADEBI elkarteak jarritako salaketa artxibatuta uztea, jokabide horrek Lehiaren Defentsarako Legea hausten ez zuela iritzita.

Hala eta guztiz ere, honen ildoan, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak jakin zuen “*Odontologiako osasun-zerbitzu profesionalak eskura izateko kontratua*” egin zutela IMQk eta bere mediku-taldeko odontologiako espezialistek, eta iruditu zitzaion kontratu horretako 3.5.b) klausulak agian Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua urratzen zuela, xedatzen duelako IMQ-rekin kontratua duen odontologoak bere bezero pribatuei kobratzen dizkien tarifa berdinak edo baxuagoak aplikatu behar dizkiela aseguratuiei.

ADEBI elkartearen jokabidea dela-eta, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren aurreko ebazpen batek, espedientea merezi izan duen jokabidearen albo-efektuei dagokionez, beste jarrera batzuk utzi zituen agerian, Legearekin bateragarri ziren edo ez zalantza piztu zutenak. Zehazki, Bizkaiko Hortz Elkarteari (ADEBI) dagokionez, “*Bizkaiko Odontologo eta Estomatologoaren Elkargo Ofizialerako erreklamazio-idazkia*” aipatzen da, ADEBI elkarteak COE Vera bidali zuena, IMQ aseguru konpainiaren aurrean esku har zezala eskatzeko, enpresa horrek merkaturatu nahi zuen hortz-poliza zela eta. Halaber, erantzuna emateko COE Vek ADEBI elkarteari bidalitako idazkian (artxibatzeak akordioan aipatzen den horretan), adierazten da ADEBI elkartearen idazkiak “43 asoziatuaren sinadura dakarrela, eta horietatik 24k jada sinatuta daukatela IMQn baldintza berdinetan jarraitzea, eta sinatzaile horietatik 4k IMQren Hortz Plana sinatu dutela”.

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak espedientea ez izapidetzeko proposamena bidali zion auzitegiari, eta ADEBI elkartearen jokabideagatik abian jarritako ekintzak artxibatzeak proposatu zion.

Auzitegiaren iritziz, ADEBI elkarteak egindakoari buruz Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ikertutako ekintzak ez dira Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua



kontrakoak, egiaztatuta geratu baita haren helburua ez zela bere aseguratuek IMQren Hortz Plana ez sinatzeko oztopoak jartzea, baizik eta zenbait agintaritzea, besteak beste, Lehiaren Defentsarako Auzitegia, IMQren Hortz Planaren jakinaren gainean jartzea.

Ikerketa osoan ez da inoiz sumatu ADEBI elkarteko kideei IMQ aseguru-konpainiarekin kontratua ez sinatzeko inongo gomendio, behartze edo oztoporik egin zaienik. Bestalde, argi eta garbi ikusten da ADEBI elkarteak Odontologoek Elkargoari Hortz Plana zela-eta kezka azaltzeko gutuna bidali zion garaian, kide batzuek kontratua sinatuta zeukatela jadanik IMQ aseguru-etxearekin, eta ez dela horregatik inongo mehatxu edo errepresaliarik egon.

Horregatik guztiagatik, LDEAk zehapen-espediterik ez abiaraztea eta ADEBI elkarteak izandako jokabideagatik hasitako ikerketa erreserbatuaren ondoriozko egintzak artxibatzea erabaki zuen, Lehiaren Defentsarako Legea urratu izanaren zantzurik ez zegoela iritzita.

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO OTSAILAREN 26AN OSOKO BILKURAN 10/2008 ZESTA PUNTA ESPEDIENTEAZ EGINIKO EBAZPENA.

Salatzailea: JAI ALIVE, S.L.

Salatutakoa: EUSKO BASQUE, S.L. eta EUSKAL IRRATI TELEBISTA- RADIO TELEVISION VASCA.

Salaketa honetan datza:

“Telebistako kirol emanaldietarako kontratua daukate EUSKO BASQUE, S.L.k eta EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISIÓN VASCA zuzenbide pribatuko erakunde publikoak. Zesta-puntako jaialdiak antolatzen dituzten bi enpresen (hau da, EUSKO BASQUE, S.L. eta JAI ALIVE, S.L.ren) arteko lehia itxuraldatzen du kontratu horrek. Kontratuaren arabera diru-zenbateko jakin bat ordaindu behar da zesta-puntako partida kopuru jakin bat telebistatik ematearen ordez. Diru hori oso-osorik kobratzen da, nahiz eta erakunde publikoak partidak telebistan eman ez.

EUSKO BASQUE, S.L.k telebista kontratua baliatzen du JAI ALIVE, S.L. merkatutik baztertzeko. Izan ere, frontoien jabeek (udalak, gehienetan) nahiago dute zesta-punta jaialdien antolaketa enpresa horri eskatzea, telebistan emango dutela bermatzen baitu. Era berean, EUSKO BASQUE, S.L.k bere baldintzak ezartzen ditu federakuntzek antolatutako txapelketetan (ez jaialdietan). Horrela, partidak telebistan ematearen truke, txapelketetara bere enpresako pilotari gehiago gonbidatu behar dituzte lehiakideenak baino”.

Auzian parte hartzen zuten enpresek zenbait konpromiso-proposamen aurkeztu zituzten. Horiek aztertuta, LDEAk honako hauei buruzko erabakiak hartu zituen: aplikatu beharreko araudia, salatutako jokabideak, merkatu garrantzitsua, enpresek merkatuan duten kokapena, atzemandako lehia-arazoen alde aurretiko ebaluazioa, hitzarmen bidez amaitzeko prozeduraren garapena eta alderdiek proposatutako konpromisoak. Azkenik, espedientea hitzarmen bidez amaitzea erabaki zen ebazpenean, Eusko Basque enpresak



aurkeztutako konpromisoak eta EITB irrati eta telebistako erakunde publikoak aurkeztutakoak atzemandako lehia arazoak konpontzeko egokiak zirela iritzita.

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO MAIATZAREN 20AN OSOKO BILKURAN 01/2009 HIRU HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA (hemendik aurrera HIRU) ESPEDIENTEAZ EGINIKO EBAZPENA.

Salatzailea: Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak bere ekimenez abiarazitako salaketa.

Salatutakoa: Hiru Herriko Garraiolarien Sindikatua.

2008ko urtarrilaren 22an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak honako gertaera hauen berri izan zuen:

2008ko urtarrilaren 21ean, HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAK garraiolarien tarifak %5 igotzea gomendatu zuen. Prentsa idatziak eta digitalak sakonki eman zuten gomendio horren berri.

Hori dela-eta, 2008ko otsailaren 25ean, LDEZk ebazpen bat onartu zuen eta, haren bidez, erabaki zuen ofiziozko zigor-espedientea hasia HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAren (HIRUren) aurka.

2008ko ekainaren 3an bertan, LDEZk HIRUren kontra hasitako zigor-espedientearen kopia bat sartu zuen Zerbitzuak Auzitegian, helegindako erabakiak xedatutako guztia berresten zuen txosten batekin batera.

2008ko uztailaren 23ko osoko bilkuran, HIRUK LDEZren Erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsioaz hausnartu zuen LDEAK, eta epaia eman ere egin zuen. Zera ebatzi zuen haren bidez:

1. HIRU garraiolarien sindikatuak aurkeztutako errekurtsioa baiestea.
2. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eskatzea HIRUri jakinarazteko ea onargarria den prozedura hitzarmen bidez eta isunik jarri gabe amaitzea ala, ikertutako jokabide larria dela-eta adibidez, ea aukera bakarra den prozedura hitzarmen bidez eta isuna jarrita amaitzea. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak prozedura hitzarmen bidez eta isuna jarrita amaitzearen alde egiten badu eta Hiruk berretsi egiten badu —isuna ordaindu behar izanik ere— prozedura hitzarmen bidez amaitzeko proposamena, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak prozedura hitzarmen bidez amaitzeko prozedura hasiko du eta, informalki, HIRU garraiolarien sindikatuaren legezko ordezkariari jakinaraziko dio zer kargu egozten dizkioten, zer froga dituzten karguen euskarri eta zer negoziazio-esparrutan amaitu behar den hasitako espedientea, hitzarmen bidez eta isuna jarrita. Hainbat konpromisok izan behar dute negoziatio-esparru horren oinarria, besteak beste, nahitaez, Zerbitzuak egotzitako karguak onartzea eta, baldin badagokio, beste proposamen batzuk egitea egindako kaltea konpontzeko, lehia sustatzeko eta LDLren kontrako jokabiderik berriz ez izateko.



2008ko urriaren 15ean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak 2008ko irailaren 30eko argibidezko autoa igorri zion LDEZri, 2008ko uztailaren 23ko Ebazpenaren bidez zigorra hitzarmen bidez txikiagotzeko xedatutako prozedurari buruzkoa.

Otsailaren 4an, LDEZren zigor-espedientea hartu zuen LDEAk, txosten batekin batera. Txostenaren barnean, ebazpen-proposamena eta interesdunek egindako alegazioak hartu zituen.

2009ko martxoaren 25ean, LDEA eta HIRU bildu egin ziren, zigor-espedientea orduan zer egoeratan zegoen analizatzeko, eta aztertzeko zein izan behar zen hitzarmen on bat lortzeko ezinbesteko edukia, eta, akordio horren bidez, prozedura hitzarmen bidez eta zigorra hitzartuz amaitzeko.

Gai guztiak analizatu ondoren, HIRUK konpromisoa hartu zuen bilera horretan landutakoa zuzendaritza-organoei jakinarazteko eta, ondoren, proposamen bat egiteko LDEAri, espedientea amaitzeko.

2009ko apirilaren 22an, berriz bildu ziren LDEA eta HIRU, LDEAren egoitzan. Bilera horretan, finkatutako helburua lortzeko HIRUK egin beharreko proposamenaren edukia zehaztu zen.

Azkenik, LDEAk emandako ebazpenak zehapenaren murrizketa hitzartu bat aplikatu zuen bigarren bez. Horrek berekin zekarren erantzukizuna onartzea eta enpresak lehia sustatzeko konpromisoa hartzea, bestela ezartzekoa litzatekeen zehapena nabarmen murriztearen truke.

Espediente honetan, honakoak hartu ditu kontuan LDEAk zehapenaren zenbatekoa murrizteko: HIRUK arau-haustea onartu izana, ebazpenaren xedapenen zatia bere web orrian eta “Garraiolariak” argitalpenean kaleratzeko konpromisoa hartu izana, eta garraioaren merkatuko lehia eta gardentasuna bultzatuko duten jarduerak sustatzeko konpromisoa hartu izana. Era berean, LDEAk aintzat hartu du, ofizioz, taldeko gomendioa zabaldu zeneko testuingurua —erregaien prezioen igoeraren eta beste gizarte-gai batzuen berri emateko asmo nagusia zuen prentsaurreko bat—, gomendioa ez zitzaizela HIRUKo bazkideei banaka jakinarazi, eta bazkideok jokabide horri jarraitu ziotenik ez dela frogatu.

Ebazpen honek berretsi egiten du zeinen erabilgarria den zehapenak hitzarmen bidez murriztea. Halako mekanismoek, Espainiako estatuan berritzaileak direnek, bateratu egiten dituzte zehapen-bidea, batetik, eta arau-hausleen kontzientzia-hartzea ahalbidetzen duen politika, bestetik, eta ahalbidetu egiten dituzte etorkizunean lehiaren aurkako jokabideak errepikatzea saihestuko duten lehia sustatzeko neurriak. Era berean, zehapena hitzarmen bidez murrizteak honakoak ahalbidetzen dizkie lehiaren agintariei: zehapen-espediente konplexuak arin eta behin betiko ixtea, baliabideak eraginkortasunez kudeatzea eta erasandako merkatuetan lehia-egoerak lehenbailehen berrezartzen laguntzea.



**LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO
MAIATZAREN 20AN OSOKO BILKURAN 02/2009 DONOSTIAKO
SUSTAPENA S.A. ESPEDIENTEAZ EGINIKO EBAZPENA**

Salatzailea: Zineazpiegiturak Oiartzun, S.L.
Salatutakoa: Donostiako Sustapena, S.A.

Salaketa honetan datza:

Enpresa salatzaileak diharduen merkatu berean jarduteko, enpresa bat diru publikoa erabiliz finantzatu omen dela salatzen da.

Salaketa egin dutenek azaldu dutenez, ordezkutzen duten merkataritza-sozietateak industriarako eta zerbitzuetarako hainbat ekipamendu sustatzen eta eraikitzen jarduten du nagusiki, eta, kasu honetan, Zinealdea delako ikus-entzunezkoen gunea garatzen lan egiten dute, zinemagintzarekin, ikus-entzunezkoen industriarekin eta haien osagarriekin zerikusi zuzena duten jarduerak sustatzeko.

Salaketa-egileek adierazi dutenez, Donostiako Sustapena SAK Udal horren Zuatzu industrialdean ikus-entzunezkoetarako antzeko beste gunea bat eraikitzeko akordioa egingo du. Publizitatean agertu denez, errenta-sistema bonifikatuak antolatuko dituzte, arlo horretan diharduten enpresak sustapen publikoko gunea horretara joan daitezten.

Ekarritako agiriak aztertu ondoren, ez da Lehiaren Defentsarako Legearen aginduak urratu izanaren zantzurik ikusi eta, beraz, Auzitegi honek, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren proposamenari jarraituz, zehapen-espediterik ez abiaraztea eta aurkeztutako salaketa artxibatzea erabaki du.

**LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO EKAINAREN
12AN OSOKO BILKURAN 04/2009 BIZKAIKO ODONTOLOGOEN
ELKARGOA ESPEDIENTEAZ EGINIKO EBAZPENA.**

Salatzailea: Bizkaiko Hortzetako Elkarte (ADEBI)
Salatutakoa: Bizkaiko Odontologoek eta Estomatologoek Elkargo Ofiziala

Salaketa honetan datza:

ADEBIren ustez IMQk profesionalekin sinatu nahi zituen kontratuek IMQren aseguratuei mediku-zerbitzuak kostuarenak baino prezio txikiagoan ematera behartuko zituen profesionalok, eta gainera frankizia batzuk ezarriko ziren, zerbitzua ematen duen profesionalak bere gain hartu beharko lituzkeenak.

Salaketa horren ondorioz, Elkargoak hainbat ekintza abiarazi zituen:

- Elkargokideei Planari buruzko argibideak eman zizkien.
- IMQk Planari buruzko kontsulta egin zion Elkargoari.

Kontsulta horien ondorioz, hiru jarraibide proposatu ziren:



- a) Gobernu Batzarrak onartutako ordainsari orientagarriak betetzea.
- b) Bere planteamenduak Bizkaiko edozein kideri irekitzeko baldin eta berau interesaturik balego.
- c) Planetik espezialitate eta espezialista hitzak kentzea.

Elkargoak adierazi zuen Hortzetako Planari dagokionez, gauza berrien artean aipagarriena dela osasun-asistentziako polizetan IMQk duen aseguru-zorroarentzat (baremoko ordainketa) nahiz ez aseguruarentzat (ordainketa atzikorra) zehazten dutela profesionalarentzako ordainsaria.

Elkargoaren Ezohiko Batzar Nagusi baten ondoren, honako hau aditzera ematen duen idazki bat prestatu zen:

- IMQren Hortzetako Planaren aurka dagoela erabat Elkargoa.
- Produktua artekaritzakoa dela eta ez aseguramendukoa.
- Haren koadro medikuan Bizkaiko edozein elkargokideri sarrera eman beharko litzaiokeela, baldin eta beronek nahiko balu.
- Plana aurrerantz joan ez dadin edozein jarduera burutuko dela.

Azkenean, Elkargoak eta ADEBIK aurkeztutako salaketa artxibatzea erabakitzen da, jokabideak Lehiaren Defentsarako Legea urratzen ez dutela iritzita.

Elkargoak baremo orientagarriak ezartzeari dagokionez, hasiera batean esan genezake halakoek badutela LDLren 4. artikulua aurreikusitako lege-salbuespena, izan ere, Elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeak, bere 5. artikuluko ñ hizkian, nahiz Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 24. artikulua lanbide-elkargoen eginkizunen artean aipatzen dute zerbitzu-sarientzako baremo orientagarriak ezartzekoa.

Idazkera hau Lurzoruaren eta lanbide-elkargoen alorretan neurri liberalizatzaileetako apirilaren 14ko 3/1997 Legeak sartutako aldaketaren ondorioa da. Lege horren arabera oro har elkargodun lanbideak lehia askearen erregimenaren eraginpean daudela aitortzen da eta lanbide-elkargoei gutxieneko zerbitzu-sariak ezartzeko zuten ahalmena kentzen zaie, egia bada ere ordainsari-baremo orientagarriak ezartzeko aukera aipatzen dela.

Alabaina, ordainsari orientagarriak ezartzeak azkenean prezioak ezartzearen antzeko ondorioak dauzka eta, ondorioz, benetako lehiarik gabeko merkatuak sortzen dituzte.

Alde horretatik, eta gaiari buruzko legedi europarraren eta nazionalaren arabera, lehiaren defentsaren agintariak Lanbide Elkargoen Estatutuetatik ordainsari orientagarriak zehazteko gomendioak egiten ari dira, eta berretsi egiten dute, horrela, halako erregulazioak ez dituela interes orokorrak eta kontsumitzaileen babesak justifikatzen.



Alde horretatik, 4/08 APIS Bizkaia eta Gipuzkoa espedientearen ebazpenean Lehiaren Defentsarako Auzitegiak Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari jardura zehatz batzuk burutu ditzan eskatzen dio, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-elkargo guztiei sei hileko epea ematea nor bere borondatez prezioei buruzko gomendio kolektiboen baliokideak diren ordainsari-baremo orientagarriak indargabetu ditzan. Behin epea amaitu eta gero, esandakoa bete ez duten elkargoei dagokien zehapen-espedientea ireki beharko dio LDEZk, LDLko 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoa hautsi izanagatik.

LDEAk uste du LDEZk eginiko proposamena egokia dela oraingo une honetan, prozedura bat irekita baitago Euskadiko lanbide-elkargoen estatutuak Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea egokitzeke.

LEHIAREN DEFENT SARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO EKAINAREN 12AN OSOKO BILKURAN 05/2009 SINTRABI BIZKAIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA ESPEDIENTEAZ EGINIKO EBAZPENA.

Salatzailea: LDEAk eskatuta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak abiarazitako Ikerketa Erreserbatua.

Salatutakoa: Bizkaiko Garraiolari Autonomoen Sindikatua (SINTRABI)

Salaketa honetan datza:

LDEAk Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari igorritako txostenean honela jasotzen da:

“Aho batez erabakitzen da LDEZi jakinaraztea ikerketa bat ireki dela, SINTRABI garraiolari-elkarteak ustez egindako honako jokabide hauen inguruan, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearekin bateraezinak izan daitezkeelakoan:

- a) 10 “lizentzia”ren zozketa, inolako lege-babesik gabea, Bilboko portuan salgaien garraioko zerbitzuak egin ahal izateko.
- b) Prezioak gehitzeko gomendioa, elkartekideei zuzendua, prentsa-ohar batean ageri denez.

Kontuan izanda Auzitegi Nazionala prozesu penal baten instrukzioa egiten ari dela SINTRABIren eta Bilboko portuan jarduten duten beste enpresa batzuen ordezkarien aurka, agindei honen gai den jokabide guztien edo batzuekin lotura izan dezaketen jokabide batzuk direla eta, LDEZk beharrezkotzat jo du Auzitegi Nazionalaren iritzia jasotzea prozedura eteteari edo ez eteteari buruz, 15/2007 Legearen 46. artikulua arabera.

Une hartan zeuden gorabeheren eta agirien arabera, honako hau erabaki zen: Bilboko portuan jarduteko beharrezko lizentziak zozketatzeari buruzko jokabideengatik espedientea ikertzeko eta izapidetzeko organo eskuduna Estatukoa zela (LBNren IZ),



eta garraioaren prezioak gehitzeko gomendio kolektiboari buruzko jokabidearen instrukzioa, berriz, euskal agintaritzak (LDEZ) egitekoa zela.

Auzitegi Nazionalak igorritako agiriak aztertuta, Ikerketa Zuzendaritza horren iritziz, nahikoa zantzu zeuden ondorioztatzeko loturaren bat zegoela a) eta b) jokabideon artean, eta batera azertu behar zirela.

Aurrekoa ikusita, ondorioztatzen da LBN dela Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legean aitortutako eskumenak egikaritzeko eskudun dena.

LDEZk eskumen galeragatiko zehapen-espeditentea artxibatzeko proposamena jakinarazi zion LDEAri, eta, hala, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2. artikuluan ezartzen diren eskumenak esleitzeko mekanismoak aktibatu ziren.

Azken batean, LDLren 44. artikuluan aurreikusitako kasuetako baten aurrean geundeke, eta beraz, LBNk du ebazpena emateko eskumena, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 1. artikulua aplikatuta. Horren ondorioz, LDEAk beharrezko iritzi zion LDEZk prozedura horren esparruan ordura arte egindako jarduerak LBNren IZri helarazteari, eta espeditentea artxibatu egin zuen.

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO UZTAILAREN 24AN OSOKO BILKURAN 06/2009 OSAKIDETZA-FONIATRAK ESPEDIENTEAZ EMANDAKO EBAZPENA.

Salatzailea: R.P.P., mediku eta foniatra.

Salatutakoa: P.G.R. Txagorritxuko Ospitaleko Otorrinolaringologiako espezialista.

Salaketa honetan datza:

Lehiaren Defentsaren Legeak debekatutako ustezko kolusiozko jokabideetan oinarritzen da salaketa.

2008ko uztailan Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak emandako ebazpen administratiboan honako hau erabaki zuen:

Isilpeko informazioa izapidetzeko fasea hastea, Arabako foniatria-arretari dagokionez kasuan kasuko zehazpen-espeditentearen izapidea hasi baino lehen.

Aztergai den auzian, mediku foniatra batek Txagorritxu Ospitaleko otorrinolaringologiako mediku espezialista bat salatu zuen, lehia askea oztopatzen zuela esanez. Izan ere, haren pazienteren batek foniatra baten beharra duenean, ez omen dio medikua libreki hautatzeko aukera errazten; aitzitik, bere emaztearengana (logopeda) edo lagun batengana (foniatra) bidaltzen du zuzenean. Salatzaileak salatutako gertaerarako aipagarria den datutzat aipatzen zuen ezen Gasteizen proba mediku hori salatzaileak bakarrik egiten duela ia. Hala, bada, fonazio-patologia hori pertsona berberengan kontzentratzen da ia osorik Arabako sare publikoan.

Salatzaileak azaldutako kasuan, gailentzen den merkatua Arabako Lurralde Historikoan foniatria edo logopedia tratamendua Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko mediku



espezialistek desbideratzean datza. Salatzaileak dio, merkatu horretan Txagorritxu Ospitaleko otorrinolaringologiako mediku espezialistak lehia askea eragozten duela. Izan ere, pazienteak foniatra baten tratamendua behar duenean zuzenean emaztearenera (logopeda) edo lagunarenera (foniatra) bidaltzen du. Gainera, eta salatutako gertaerekin lotutako datu garrantzitsu gisa, salatzaileak adierazi du fonazio-patologia laringeko estroboskopiaren bidez antzematen dela. Gasteizen egiten diren mota horretako proba mediku guztiak salatutakoak egiten ditu.

Arabako Lurralde Historikoan sektore pribatuan zein publikoan foniatria- eta logopedia-espezialitateetan eskura dauden profesionalen aukera aztertuta, alde nabarmena antzematen da salatzaileak azaldutako gertakarien eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak jasotako artean; horiei esker ondoriozta daiteke salatzaileak azaldutako gertakariak ez datozela bat errealitatearekin. Hala ere, salatzaileak Arabako Osakidetzak foniatria edo logopediako arreta-prestazio sistemaren lehiaren defentsa araudiarekin bat ez datorrela salatzen duenez, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak azaldutako gertakariak Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearekin egiaztatu behar dira.

Hala, bada, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua aurrak urratzea gerta dadin, zenbait eragile ekonomikoren arteko edo elkarte bateko borondateen bat etortzea behar da.

Hortaz, artikulua hori salaketa horren testuinguruan aztertuta, ondorioztatu dezakegu ez dagoela salatuaren eta beste profesional batzuen (foniatrak edo logopedak) artean sektoreko lehia libre eragotzi edo Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua urratzen duen borondateen bat-etortzerik.

Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikulua urratzeko, aztertutako jokabidean inplikaturako eragileek aurretiaz ezarritako merkatuan nagusitasun-posizioa izan beharko lukete.

Egindako azterketaren ondorioz, ezin da ondorioztatu artikulua horri dagokionez salatutakoak nagusitasunezko posiziorik duenik asistentzia logopediko/foniatrikorako eratorpenaren merkatuan Araban, ez eta Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikulua urratuz aipaturako merkatu osoa hartzen duenik ere.

Horregatik, aipaturako guztitik ulertu behar da salaketan azaldutako gertakariak ezin direla egiazkotzat jo eta salatutako gertakariak buruz Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak frogaturakoak ez duela Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legea urratzen; hortaz, aurkeztutako salaketaren ondorio gisa zehapen-espedita ez hastera eta jarduteak artxibatzea erabaki da.

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO EKAINAREN 12AN OSOKO BILKURAN 07/2009 ZINEMA BANAKETA ESPEDIENTEAZ EMANDAKO EBAZPENA.

Salatzailea: Sociedad Anónima Deportes y Espectáculos (SADE).

Salatutakoak: Filmax Entertainment, S.A eta Sogedasa.



Salaketa honetan datza:

Idatzi bat aurkeztu zen, esanez *Filmax Entertainment* enpresak “*Slumdog Millionaire*” filmaren kopia bat bakarrik bidali ziola salatzaileari, Donostiako Gros auzoko bere zinema-aretoan erakusteko, eta debekatu egin ziola film hori Donostiako erdialdeko “Príncipe” bere zinema-aretoan erakustea. Salatzaileak argudiatzen zuenez, “*Slumdog Millionaire*” filma Donostiako erdialdeko bere zinema-aretoan erakutsi ezinak lehia murrizten zuen eta kontsumitzaileei kalte egiten zien.

Era berean, LDLren 54. artikulua babesean, salatzaileak zuhurtziako neurri zenbait hartzeko eskatu zion LDEZi.

Geroago, LDEZk administrazio-ebazpena eman eta zehazpen-espedientea ireki zuen.

2009ko otsailean, LDEZko Zuzendariak ohar labur bat igorri LBNren Ikerketa Zuzendaritzari, gertaeren berri emanez.

LDEAren Osokoak LDEZren zuhurtziako neurrien proposamena izapidetzeko onartzea erabaki zuen.

2009ko apirilean, LBNren Ikerketa Zuzendaritzaren idazki batek sarrera izan zuen LDEZen erregistroan, eta han jokabide salatua LDLren arabera balioesteko eskumena erreklamatzeko zen. Balioespen hartan honako hau adierazten zen, hitzez hitz:

“Como resultado de la información reservada llevada a acabo por esta Dirección de Investigación y a la vista de la información aportada por la mercantil denunciada, queda patente que esta, actúa en un ámbito al menos nacional y que en la comercialización de la citada película, como ha manifestado la propia empresa denunciada, se ha distribuido por todo el territorio nacional y se le ha negado también a otras salas repartidas del territorio nacional, quedando claro que la práctica denunciada tiene lugar en el mercado mayorista de distribución de películas que es nacional y ha producido sus efectos en el mercado minorista de exhibición de películas que aunque es local, se ha producido en otras salas del territorio nacional, por lo que ha excedido del territorio de esa Comunidad Autónoma.

Por ello, en atención a que los hechos denunciados alteran o pueden alterar la libre competencia en un ámbito supraautonómico o en el conjunto del mercado nacional y que van más allá del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se considera que corresponde al Estado el ejercicio de las competencias reconocidas en la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia”.

Aztergai den espediente honetan, LBNren Ikerketa Zuzendaritzak gertaera bidez eskumen-arazo bat mahaigaineratu du, merkataritza-sozietateak salatutakoen aurka jarritako salaketaren ezagutzari dagokionez. LBNren Ikerketa Zuzendaritzak ez du auziaren berri izan, harik eta LDEZk zegokion zehazpen-espedientea ireki duen arte, eta hori honexegatik gertatu da: LDL ustez urratzen zuten egitateengatik jartzen ziren salaketek zuhurtziako neurriak premia hartzeko eskatzea berekin zekartelako.

Izan ere, espedientea ireki aurreko aldiaren gaiaz arduratzeko organo eskuduna zein den mugatu ahal izateko beharrezkoa den administrazio-koordinazioak ez dezake eragotzi,



inola ere, behin betiko ebazpen eraginkor baterako beharrezkoak diren presako neurriak (zuhurtziako neurriak) hartzea.

Euskal organoek gaiaz arduratzeko duten eskumenaren balioespenari dagokionez, auzitegi honen iritziz, salatu den jokabidea salatutako enpresaren banaketa-politika nazionalaren parte da, eta ez da atzematen salatzailea baztertzeko inolako asmoren zantzurik. Hori dela eta, bidezko da LDEZek irekitako zehapen-espedientea zuhurtziako neurriak hartzeari buruzko espedientea artxibatzea, eskumen ezagatik.

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAK 2009KO AZAROAREN 24AN OSOKO BILKURAN 11/2009 MERKATARITZA ORDUTEGIAK ESPEDIENTEAZ EMANDAKO EBAZPENA.

Salatzailea: LDEAk abiarazitako espedientea.

Salatutakoak: Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados (ASEDAS), Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera, Centros Comerciales Carrefour, S.A., Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseilua (CECOBI), Decathlon España, S.A.U., El Corte Inglés S.A., Eroski, S.COOP., Ikea Norte, S.L., Leroy Merlin España, S.L.U., Media Markt Administración España, S.A.U., Supermercados Sabeco, S.A., y Toys'R'us Iberia, S.A.U.

Salaketa honetan datza:

Lehia murrizten duten jokabideak, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak debekatutakoak, burutzea, ustez, igande eta jaiegunetan merkataritza-dendak irekitzeko ordutegia zehaztean.

Espediente honetan azaldu den lehia-arazoa ebazpen honetan azaldu diren kideen partaidetzarekin ordutegiei buruzko adostasun-mahaia eratzetik ondorioztatzen da.

Adostasun-mahai horretan, enpresa partaideek, elkarren lehiakideak direla, lehia murrizteko moduko erabakiak hartu dituzte, bereziki Bizkaiko Lurralde Historikoan jaiegunetan irekitzeko aukera mugatuz, eta horrela, merkataritza-politikak ezartzean gailendu behar duen enpresaren askatasun-printzipioa hautsiz.

Bizkaiko Lurralde Historikoan eta EAEn jaiegunetan dendak ez irekitzea salbuespena da Estatuan, jaiegun batean ere dendak eta merkataritza-gune handiak irekitzen ez dituen autonomia-erkidego bakarra baita. Auzitegi honek uste du enpresek eta sindikatuek eragindako ezohiko gertaera dela hau, gainerako autonomia-erkidegoetan ohiz kanpokoa dena EAEn arrunt gisa ezartzea lortu baita.

Amaiera itundua eskatu duten enpresek aurkeztutako konpromisoek bi aldetan bermatu behar dute interes publikoa. Alde batetik, enpresek konpromiso argi eta irmoa hartu behar dute, jaiegunetan dendak irekitzearekin zerikusia duen akordiorik berriro ere zuzenean edo zeharka egingo ez dela esanez; horrela, enpresa bakoitzak zehaztuko du bere merkataritza-politika, modu autonomoan. Beste alde batetik, etorkizunean enpresek lehia defendatzeko organoekin jarrera proaktiboa eta lankidetzakoa izateko konpromisoa hartu beharko dute, dendak irekitzeari dagokionez kontsumitzaileentzat interes orokorrekoak izan daitezkeen igandeak edo jaiegunak zehazteko. Konpromiso



honen helburua da dendak jaiegunetan irekitzea saihesteko sindikatuak egiten duten presioa arintzea, eta dendak jaiegunetan eta kontsumitzaileentzat interesgarri izan daitezkeen egunetan irekitzea erraztea, helburu hori lortzeko jarrera positiboa eta gizarte-eskaria sor ditzaketen komunikazio-kanpainak ere eginez.

Auzitegiak uste du enpresek aurkeztutako konpromisoak bete egiten dituztela aipatu diren bi helburuak eta, ondorioz, interes publikoa bermatzen dutela, 15/2007 Legearen 52. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Alde batetik, enpresek konpromisoa hartu dute igande edo jaiegunetan dendak irekitzeko duten askatasuna mugatu dezaketen hitzartutako jardunbide edo erabakietan parte ez hartzeko. Beste alde batetik, azaldutako konpromisoen bitartez, enpresek lehiarloan eskumena duen euskal agintaritzarekin elkarlanean aritzera behartu dute euren burua, jaiegunetan dendak irekitzea errazten saiatzeko, Merkataritza-ordutegiak ezartzen dituen abenduaren 21eko 1/2004 Legearen araudia garatzearen bitartez (LDEAk proposatuko lioke Eusko Jaurlaritzako organo eskudunari) edo LDEAk eta enpresa eskatzaileek elkarrekin aztertuko dituzten beste bitarteko batzuen bitartez, interes orokorrekotzat hartuko diren jaiegunetan dendak irekitzearen aldeko giroa sortzeko euskal gizartean.

LDEAren EBAZPENEN LABURPEN TAULA, 2009

Espedientea	Sektorea	Data	Emaitza.
07/2008 TKI	Laguntza publikoak	02/02/09	Zehapen-espeditierik ez hastea eta salaketa artxibatzea
08/2008 MUTUA MADRILEÑA	Aseguruak	02/02/09	Zehapen-espeditierik ez hastea eta salaketa artxibatzea
09/2008 ADEBI	Osasun-zerbitzuak.	20/05/09	Zehapen-espeditierik ez hastea eta salaketa artxibatzea
10/2008 ZESTA PUNTA	Kirolak	26/02/09	Espediente itxia: Hitzarmen bidezko amaiera eta parteek proposatutako konpromisoak
01/2009 HIRU	Garraioak	20/05/09	Zigor-espeditientea. Hitzartutako zehapen bidezko amaiera.
02/2009 DONOSTIAKO SUSTAPENA S.A.	Laguntza publikoak	20/05/09	Zehapen-espeditierik ez hastea eta salaketa artxibatzea
BIZKAIKO ODONTOLOGOEN ELKARGOA	Osasun-zerbitzuak.	12/06/09	Zehapen-espeditierik ez hastea eta salaketa artxibatzea
05/2009 BIZKAIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA	Garraioak	12/06/09	Eskumen-ezagatik artxibatua



06/2009 OSAKIDETZA- FONIATRAK	Osasun-zerbitzuak.	24/07/09	Zehapen-espediterik ez hastea eta salaketa artxibatzea
07/2009 ZINEMA BANAKETA	Zinema eta ikuskizunak	12/06/09	Eskumen-ezagatik artxibatua
11/2009 MERKATARITZA ORDUTEGIAK	Zerbitzuak	24/11/09	Zigor-espeditentea. Jokabide-zigorra.

B) Baliabideak esleitzea, Lan-planean zehazten diren sektore edo merkatuen eta jarduteko lehentasunen arabera.

Lan-planean zehazten diren lehentasunak arlo hauei dagozkie: Lanbide liberalak, hitzarmen kolektiboak, merkataritza-banaketa eta kontratazio publikoa.

Hala, bada, LDEAK sektore horietara bideratu zituen bere jardun-lehentasunak, jardute zehatzen bitartez:

1. arloa: Lanbide liberalak

- Ofiziozko gomendioak proposatu zizkien profesionalen elkargoei (4/08 espeditentea, APIS BIZKAIA eta GIPUZKOA).
- Ikerketa-jarduerak abiarazteko eskatu zion LDEZi.
- EJko zenbait Sailekiko eta profesionalen elkargoekiko koordinazio-bilerak egin ziren, prebentzio-jarduerak bultzatzeko.

2. arloa: Hitzarmen kolektiboak

- Lehiaren sustapenari buruzko bilerak egin ziren patronalekin eta sindikatuekin.

3. arloa: Merkataritza-banaketa

Estatuko lehiaren agintarietako lantalde bat (LBN eta agintari autonomikoak) zuzendu zen, merkataritza-banaketaren sektoreko lehia-arazoak aztertzeko.

Sektore-ikerketa bat egin zen, “Egunero kontsumitzeko ondasunen banaketa: lehia, oligopolioa eta isileko kolusioa” izenekoa, honako hauek aztertzeko:

- Txikizkako banaketako lehia.
- Banaketa – hornitzaileak harremanak.
- Sektoreko lege-murrizketak
- Bereziki jai-egunetako irekiera-ordutegiei dagokienez.

4. arloa: Kontratazio publikoa



1. Estatu mailako Lehiaren Defentsaren Agintarien Kontratazio Publikoari buruzko Sarean parte hartu zen.
2. Sare horretan, edozein autonomia erkidegotan kontratazio publikoaren prozeduretako lehia-arazoak ebazteko salaketa formalaren eta informalaen sistema bat sortzea proposatu zen.

C) Arau-proiektuei buruzko, sektore publikoari buruzko eta oro har merkatuko lehia askea bultzatzeko txostenak, ebazpenak eta komunikazioak egitean, azterketa-teknika moderno eta bizkorrak aplikatzea.

2009. urtearen hasieratik, LDEAk bere jardute-printzipioen barne-berrazterketa bat egin zuen, Auzitegiak eta lehiaren nazioarteko beste agintaritzak batzuek merkataritza-gune handiak zabaltzeko lizentziak emateari dagokionez esperientzia zabala hartua zutela ikusirik.

Gogoeta horrek txosten bat izan zuen emaitza; txosten horretan merkataritza-banaketa sektoreko lehiaren lege-murrizketak eta kontzentrazio handiegia salatzen ziren.

Merkataritza-gune handien gaineko bi txostenek aipu egiten diote azaroaren 28ko 244/2006 Dekretuaren 7.3. artikuluan ezarrita dagoenari; dekretu horrek aldatu egiten du *Merkataritza-gune handiak ezarri, aldatu eta handitzeko* martxoaren 27ko 58/2001 Dekretua, zeinak, era berean, garatu egiten baitu azaroaren 10eko 7/2000 Legea, Merkataritza-jarduerari buruzko 7/1994 Legea aldatzen duena. *Arau-testuinguru horrek merkataritza-etxe handiak ezartzeari, handitzeari edo aldatzeari buruzko aginduzko txosten ez lotesleak egiteko eta lehia askeari dagokionez zer eragin izan dezaketen aztertze erantzukizuna esleitzen dio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari.*

Gai horretan jarduteko Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Zuzendaritzak eginiko eskaerei erantzunez Auzitegiak merkataritza-etxe handiei buruz egin dituen txostenek (merkataritza-gune handiak ezartzeko, handitzeko edo aldatzeko lizentziak), proiektuek lehiaren defentsaren ikuspuntutik egokiak diren balioestea dute xede. Jarraian, Auzitegiak jarduera mota horri buruz 2009ko ekitaldian zehar eginiko txostenak zerrendatzen ditugu.

LDEA-k 2009AN MERKATARITZA GUNE HANDIEI BURUZ EGINIKO TXOSTENAK

ESKATZAILEA	GAIA	LDEAko SARRERA DATA	LDEAko IRTEERA DATA	OHARRAK
UVESCAYA,S.L. IRUN	EZARPENA	27/03/2009	12/06/2009	Aldekoa
LEROY MERLIN ESPAÑA,S.L.U. LEIOA	TITULARTASUN AREN ALDAKETA	24/11/2009	21/12/2009	Aldekoa

Ikusten denez, 2009an zehar merkataritza-gune handiei buruzko bi txosten egin dira, aurreko urteetan baino askoz gutxiago. Urritze hori, neurri batean, Barneko merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren



12ko 2006/123/EE Zuzentaraua indarrean sartu izanari zor zaio. Izan ere, zuzentarau horrek funtsezko aldaketak ekarri ditu hainbat estaturen legerietan aldeztu diren irizpideetan eta merkataritza-gune handiak ezartzeko administrazio-baimenak emateko prozeduretan; “sektoreko araupetzea”ak argudio-indarra galtzen duen esparru batean –edo gutxienez, modu nabarmenean eraldatzen den une batean– lehiakortasunaren balioak hartzen du, inondik ere, garrantzirik handiena, eta horrek jarduera ekonomikoko beste sektore batzuek bizi dituzten erronka eta tentsioko dinamikekin homologatzen du merkataritza.

Aipaturiko zuzentzarauak, besteak beste, murriztu egiten du banakako froga ekonomikoaren prozedura merkataritza-jarduerak garatzeko administrazio-baimenean, eta ikuspegi berri baterantz garamatza, interes orokorrari lotzen zaizkion lurralde-antolamenduko, hirigintzako, ingurumeneko eta kohesioko irizpideen aplikazioari lotutako ikuspegi berri baterantz, alegia.

Hala, bada, udalen esku jartzen da merkataritza-orientazioko planak onartzeko aukera; plan horiek gaiari buruzko haien politikak Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek hartutakoekin lotzeko balio beharko dute, halako moduz non, haren laguntza eta finantziazioa izanik, hirugarren sektorean lankidetza publiko-pribaturako egiturak sortzea bultzatuko den, udal-inguruneak ekonomia urbanoko espaziotzat hartuko dituzten zonakako estrategiak gara daitezela bultzatzeko. Ingurune horiek, horrela, esku-hartze bateratu eta koherenteko foku moduan jardungo lukete, udalen estrategiaren barruan, inguruneen arteko lehia eta enpresen lehiakortasuna bultzatuz.

Zerbitzuen Zuzentaraua indarrean sartu izanak Merkataritza Legea aldatu beharra ekarri du. Alde horretatik, Lehiaren Batzorde Nazionalak merkataritza-gune handientzako baimena deuseztatzea erabaki zuen, oso interbentzionista zela argudiatuz.

Zerbitzuen Zuzentzarauak sinplifikazio administratiboa du funts nagusia eta, beraz, merkataritza-gune handientzako bigarren lizentzia autonomikoa desagertu egiten da. Aldaketa horren arabera, merkataritza-gune handientzako baimena, beste edozein enpresa-ekimenezkoa bezala, Udalek eman beharrekoa litzateke. Testuinguru berri horretan, industriaren sektorearekin zerikusia duten zenbait jarduera ikerketa autonomiko baten pean utziko dira.

EGINIKO TXOSTENEN TIPOLOGIA	Kopuru a
Merkataritza-gune handiak (244/2006 Dekretua, azaroaren 28koa, 7-3. artikulua)	2
Merkatuak (15/2007 Legea, Lehiaren Defentsari buruzkoa, 26. artikulua / 36/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, 6.f) artikulua). Eguneroko kontsumo-ondasunen banaketari buruzko txostena: Lehia, oligopolioa eta isilpeko kolusioa.	1



Kontsultakoak (36/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, 6.d artikulua). Kontzentrazioari buruzko txostena.	1
Jarduerakoak (36/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, 11. artikulua). LDEAren jardueren oroitidazkia, 2009	1
Lehiaren sustapena (LDL 26,d artikulua).	1
GUZTIRA	6

Aipatutako merkataritza-gune handiei buruzko txostenez gain, LDEAk beste txosten mota batzuk burutu ditu, taulan adierazten denez:

1. Merkatuei buruzko txosten bat (1): Eguneroko kontsumo-ondasunen banaketari buruzko txostena: lehia, oligopolioa eta isilpeko kolusioa.

Azken urte hauetan txikizkako banaketaren kontzentrazio gero eta handiagoak eta orobat kontzentrazio horrek eguneroko kontsumo-ondasunen (behar-beharrezko produktuen) prezioetan eta hornitzaileekiko merkataritza-harremanetan izan duen eraginak eztabaida bizia piztu du herrialde askotan, eta esku-hartze publikoa handiagoa izateko eskaera ekarri du.

Txosten horren bitartez honako hau lortu nahi da:

a) Oligopolio kolusiboak dituzten merkatuetan nagusitasunezko egoeraren kontzeptu juridikoaren aplikazioa argitu.

b) Txikizkako banaketaren merkatu espainolean oligopolio kolusibo bat existitzen dela egiaztatu.

c) Kontsumitzaileen onerako lehia handiagoa sustatuko duten konponbideak proposatu, beharrezkoa balitz.

2. Kontsultako txosten bat, Lehiaren Batzorde Nazionalaren eskaerari erantzunez. Lehiaren defentsari buruzko 15/2007 Legearen 39.1 artikulua zehazten duenez, edozein administrazio publikotako erakunde guztiek lankidetzara eskaini beharko diote Lehiaren Batzorde Nazionalari, eta Batzordeak eskatuz gero, eskatutako epearen barruan, esku artean dituzten datuak eta informazio guztia eman beharko diote, lege honek dioena ezartzeko beharrezkoa baldin bada. Alde horretatik, LDEAk kontzentrazio ekonomikoaren eragiketa bati buruzko txosten bat egin du; eragiketa horretan, enpresa batek txikizkako banaketako merkataritza-gune bati zegozkion aktiboak erosi zituen, Errenterian (Gipuzkoa).

3. Jarduera-txosten bat, agerraldi bidez eta LDEAren eskaerari erantzunez, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen aurrean: “2008ko jardueren oroitidazkiaren aurkezpena”.

4. Herri administrazioan lehia sustatzeari buruzko txostena (Laguardiako Udala), LDLaren 26. artikulua (d) letra oinarri hartuta; artikulua horrek



baimena ematen die lehiaren agintariei Administrazioari bere jardunetik ondorioztatzen diren lehia bideragarriaren murrizketak aldatzeko edo ezabatzeko proposamenak igortzeko, bai eta, beharrezkoa balitz, merkatuetan lehia mantentzeko edo berrezartzeko gainerako neurriak hartzeko ere.

Agintaritzen txostenak eta gomendioak lotesleak ez badira ere, 13.2 artikulua dagokien esparru geografikoaren barruan lehia murrizten duten legez azpiko arau eta administrazio-egintza ororen aurka eta orobat errekurtoa jartzeko gaitasun prozesala ematen die.

D) LDEZrekin (Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua) lankidetzan aritzea eta LDEAren eta LDEZren arteko jarduteak koordinatzea.

LDEA eta LDEZ, Lehiaren Defentsarako Euskal Sistema eratzen duten erakunde gisa, etengabeko koordinazio- eta lankidetzajarraibide batzuen arabera jokatzeko dute; koordinazio eta lankidetzari hori etengabeko harreman informalekin bidez ez ezik, aldiroko bileren bidez ere gauzatu da 2009an zehar. Bilera horietan unean uneko auzien hainbat alderdi landu dira, besteak beste:

- Egin beharreko ikerketen planifikatzea.
- Profesionalen elkargoak.
- Hitzarmen kolektiboak. Jai-egunetan irekitzea.
- Sindikatuak.
- Ahozko ikustaldia prestatzea. Takografoak
- Lehiaren Batzorde Nazionaleko parte-hartzea.
- LBNk koordinatutako lantaldeetako parte-hartzea.

2. HELBURUA. GIZA TALDEA ERATZEA.

A) LDEAren barne-egitura diseinatzea, haren eskumenei egokitzuz.

Ekitaldi honetan zehar, barne-funtzionamenduaren mekanika sendotu eta Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea onartzearen ondoriozko eskumen berrietara egokitu da; ondorioz, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretua aldatu da, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen Dekretua aldatzen duen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretu berriaren bitartez.

LDEAren Idazkaritza Orokorra.

Auzitegiko idazkaritza Osoko Bilkuraren prozedurak eta ebazpenak Zuzenbidearen araberrakoak direla bermatzeko eta bere kideei aholkularitza juridikoa eskaintzeko eskumena duen zuzendaritza-organoa da. Idazkariak beren funtzioei dagozkien auziak izapidetzen eta kudeatzen laguntzen die kideei, eta orobat Osoko Bilkuraren bilerak prestatzen; bilera horietan parte hartzen du, hitza bai baina botorik ez duela.



36/2008 Dekretuak, martxoaren 4koak, 6.1) artikuluan ezartzen duenez, LDEAren Osoko Bilkuraren funtzioetako bat Auzitegiko idazkaria izendatzea da. 7.5 artikulua zehazten duenari jarraiki, LDEAko idazkari-lanak hitza bai baina botorik ez duela egingo dituen A taldeko funtzionario bat izango da, zuzenbidetzako lizentziaduna, Ogasun eta Herri Administrazioiko Sailera atxikia eta Auzitegiko Osoko Bilkurak izendatua.

Lanean hasi eta lehenengo lau urteetan, Auzitegiak Idazkari Orokor baten laguntza, arduraldi partzialekoa eta ez ordaindua, izan du Auzitegiak.

Administrazio-prozeduraren aplikazio informatikoa.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren aldaketak, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen ondorioz martxoaren 4ko 36/2008 Dekretu berria jasotzen denak, lehiaren defentsarako euskal organoen funtzioak ugaritzea ekarri du. Egoera berri horrek eskatzen duen LDEAren eta LDEZren arteko koordinazioaren eta lankidetzaren indartzea aplikazio informatiko baten bidez gauzatu da laster; aplikazio horrek garatu beharreko espedienteetako prozedura hobetu eta arinduko du.

B) Gaitutako profesionalen hornitzea.

Administrazio-sistemak giza baliabideei dagokienez sortzen dituen zailtasunak kontuan hartuta, LDEAk planteamendu posiblistak eta erakundearen behar objektiboak baino askoz apalagoak aurkezten jarraitzen du.

2008an, aurreko ekitaldiaren amaieran iritsitako ekonomia-teknikari bat guztiz integratu zen LDEAn.

2006tik aurrera, erakundearen administrazio-lan guztiak egiteaz arduratzen den pertsona bat dago. Pertsona horiek esperientzia luze eta egiaztatua dute Eusko Jaurlaritzaren zenbait Sailetan.

2009. urtean, zuzenbidetzako lizentziadun teknikari berri bat iritsi zen. Teknikari horrek honako funtzio hauek beteko ditu:

- Estatu eta erkidego mailako Lehiaren Zuzenbidea gure lurraldean aplikatzearekin zerikusia duten eginkizunak burutu. Zehazki, gaiari buruzko zuzenbidearen eta jurisprudentiaren bilakaerari buruzko txostenak eta ikerketak egin, honako alderdi hauek landuz: kolusiozko jokabideak, kontzentrazioen kontrola eta laguntza publikoen kontrola.
- Era berean, Zerbitzutik iritsi eta Auzitegiak ebatzi beharreko espedienteetan burutu beharreko prozeduraren jarraipena egingo du. Halaber, eginiko ebazpenak betearazteko eginkizunetan lagunduko dio Auzitegiari.



- Erakunde, profesional eta enpresarientzako ikastaroak eta hitzaldiak antolatzen lagunduko du.
- Haren ordezkapen-funtzioarekin zerikusia duten jardueretan lagunduko dio Auzitegiari.

C) Ikaskuntza etengabearen kultura sustatzea.

Formazio etengabea.

Birziklatzea, ezagutzak eguneratzea, hobekuntzan etengabe sakontzea, eta lehiaren zuzenbidearen eta ekonomiaren aplikazioan eta tratamenduan aurrera egitea helburu lehentasunezko eta halabeharrezkoa da LDEArentzat.

Sareko lana Lehiaren Europako Sistemari abiatzen da; sistema hori, Europar Batasunean lehiaren arloan agintari gorena den Europako Batzordetik, Estatu kideetako sistemekin koordinatzen da. Era berean, zenbait Estatu, hala nola Alemaniak eta Espainiak, lehiaren defentsarako sistema ez zentralizatuak baitituzte, beharrezkoa egiten dute lehiaren politikaren tratamendurako ezagutza etengabe berritzea eta koordinatzea.

LDEAk Estatu, Europa eta nazioarte mailako zenbait jardueretan parte hartzen du, etengabeko formazioa lortzeko, eta lehiari buruzko araudiaren aplikazioan eta lehiaren arloan analisi ekonomikoak duen garrantzian egiten diren aurrerakuntzetan eguneratuta egoteko. Barne funtzionamenduari dagokionez, antzeko jarduerak antolatzen ditu, nahiz eta Administrazioak zenbait zailtasun dituen langile teknikoaren eta administratiboaren etengabeko formazioan aukerak lortzeko, hala nola hizkuntzen hobekuntzan eta mantentzean eta beste gaitze-ikastaro batzuetan.

Alde horretatik, LDEAk honako hauetan izan duen parte-hartzea nabarmendu nahi dugu:

- 2009ko Udako Ikastaroak: “El sector servicios ante el derecho de la Competencia: Retos y Desafíos”.
- Comunitat Valencianako Lehiaren Defentsarako Auzitegiak antolatutako Lehiaren Defentsari buruzko III. Nazio Jardunaldiak.
- Lehia-ikuskaritzari buruzko ikastaroa, Lehiaren Batzorde Nazionalak antolatua.

D) Garrantzi eta esperientzia aitortuko erakunde eta pertsonen lankidetzarako beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea eta administratzea.

Harreman horiek gauzatzeko, lankidetzazuzena eta lankidetzaz-hitzarmenak egin nahi dira unibertsitateekin, Estatu, Europa eta nazioarte mailako lehiaren agintariekin, eta lehiaren politikaren arloan (alderdi ekonomikoari zein juridikoari dagokionez) garrantzi nabarmena duten pertsonekin.



2009ko ekitaldi honetan zehar, LDEAk laster sinatuko dituen erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmenen testuak landu eta garatu dira, zehazki honako erakunde hauekikoak: Frantziako Lehiaren Agintaritzaz (Conseil de la Concurrence) eta Lehiaren Batzorde Nazionala (LBN).

Hainbat unibertsitaterekiko harremanak ere izan dira, haietako irakasleekiko lankidetzaz bitartez: Bartzelonako Unibertsitatea, Madrileko Unibertsitate Konplutensea eta Oviedoko Unibertsitatea.

3. HELBURUA. ERAKUNDEENTZAT ETA EKONOMIA ETA GIZARTE ERAGILEENTZAT ERREFERENTZIA IZATEA.

A) LDEAren zabalkundea eta gardentasuna.

Gardentasuna LDEAren erreferentziatzeko bost balioetako bat da, bere jokabidea eta kudeaketa-eredua barruan zein kanpoan nabarmenaraziko duena.

Zabalkundea, bestalde, LDEAren helburu estrategikoa da, hobekuntzarekin eta ezagutzarekin batera. Haren bitartez, lehiaren kultura zabaldu nahi da euskal gizartean, gizarte- eta ekonomia-eragile guztiek eta gizarteak oro har denen onurarako faktoretzat jo dezaten.

Alde horretatik, martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen Dekretua aldatzen duenak, bere 6.n) artikuluan adierazten du Auzitegiaren Osoko bilkuraren funtzioetako bat lehiaren defentsari buruz Eusko Legebiltzarrari egiten zaizkion kontsultak erantzutea dela. Era berean, Dekretu horretako 6.p) artikuluan eta 11. artikuluan zehazten denez, Auzitegiaren beste funtzio bat urteroko oroitidazkia egitea da, eginiko espedienteen instrukzioak, ezarritako zehapenak eta organo horrek burututako jarduera guztien berri ematen duen informazioa jasotzeko.

2008KO JARDUEREN OROITIDAZKIAREN AURKEZPENA.

Bere jardunaren gardentasunaren eta zabalkundearen aldeko konpromisoa bete nahian, eta bere ekimenez, Auzitegiak agerraldi bat egin zuen Eusko Legebiltzarraren aurrean 2009ko abenduaren 1ean, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen aurrean, LDEAren 2008ko Jardueren Oroitidazkia aurkezteko.

B) LDEAren ikusgaitasun ahalik eta handiena.

LDEAk sarean duen presentzia erakundeak eskuratu nahi duen ikusgaitasunaren eta irisgarritasunaren adierazle goren da. 2009ko ekitaldi honetan zehar, web orriari esker erakundearen presentzia sendotu da; delako web orriaren mantentze- eta elikatze-lanak bertoko langileek burutzen dituzte.



Auzitegiak beharrezkotzat eta lehentasunez kotzat jotzen du gizarteari erakundearen izaera eta irudi independentea ahalik eta ikusgaitasun handienaz agerraraztea, eta argi adieraztea Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzara atxikitako organoa izanik ere, ez dela Euskal Autonomia Erkidegoaren egitura hierarkikoaren parte eta, beraz, Euskal Herri Administrazioetik aparte burutzen dituela bere funtzioak; ezinbestekoa da, hortaz, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak kudeaketarako autonomiaz eta ordenamendu juridikoari bete-betean men eginez burutzea bere funtzioak.

LDEAren web orria erakundearen eta enpresa eta lurraldeko zein tokian tokiko administrazioen arteko lehen topagunea izan da sarri.

Web orria 2008ko maiatzean abiatu zen; 2009a da, beraz, lehen funtzionamendu-urte osoa. Lehen urte honetako balantzea oso positiboa da. Erabilgarritasunari dagokionez, erabilera %5 igo da iazko datuekin konparatuta; erabiltzaileak guztira 4.199 izan dira. Ondo burututako deskargen ehunekoa iazko bera da: %99.

Ekitaldi honetan, Auzitegian bertan kudeatzen diren espedienteentzako aplikazio informatikoa garatzeko lehen urratsak egin dira. Aplikazio informatiko hori Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) eta Auzitegiko teknikariek garatuko dute.

C) Euskadiko Lehiaren Egunaren ospakizuna.

Egun honen urteko oroipenaren helburua ekonomia- eta gizarte-eragileen artean eta, oro har, euskal herritarren artean lehiaren defentsa zabaltzeko eta sustatzeko gune bat eskaintzea da.

Euskadiko Lehiaren Eguna 2009ko martxoaren 13an ospatu zen, LDEZk eta LDEAk eratzen duen Lehiaren Defentsarako Euskal Sistema abian jarri zen egunaren urteurrenean, hain zuzen. Oraingo honetan, topaketaren gaia “**Futbola eta lehia: ikus-entzunezko eskubideak eta arautzea**” izan zen; topaketa horretan futbolaz eta lehiatzeko gogoeta egin zen lehenengoz, eta ekonomiaren sektore garrantzitsu honetan existitzen diren posizioak aurkeztu ziren.

Jardunaldia bi zatitan banatu zen. Lehena futbolari eta telebistari buruzkoa izan zen. Futbolaren ikus-entzunezkoen eskubideen salmenta-ereduak aztertu ziren, kirolaren balio ekonomikoa jabego intelektualaren eskubideekin, eta azken horiek, era berean, egile-, irudi- eta zabalkunde-eskubideekin lotuta daudenez. Bigarren partean futbolaz eta futbola erregulatzen duen araudiaz jardun zen, futbolarentzako araudi espezifiko bat eduki beharraz eta futbol-taldeen gaur egungoa bezalako krisi-egoeretan esku-hartze publikoaren mugez.

Hizlariak honako hauek izan ziren: Juan Espinosa (LBN), Javier Tebas eta Jose Luis Astiazaran (LNFP), Joseph María Benet (MEDIAPRO), Fernando García Macua (ATHLETIC) eta Jesús Alfaro eta Jose Luis Buendía izen handiko sozietateetako abokatuak.



t Europako Batzordearen “Kirolari buruzko Liburu Zuria”n adierazten denaren arabera¹, “*Kirolaren balio ekonomikoaren zati gero eta handiago batek zerikusia du jabetza intelektualeko eskubideekin. Eskubide horiek egile eskubideekin, komunikabide komertzialekin eta markekin loturik daude, baita irudi eta zabalkunde eskubideekin ere. Gero eta globalizatuagoa eta dinamikoagoa den sektore batean, jabetza intelektualeko eskubideen arloko arauak mundu osoan modu eraginkorrean aplikatzea, kirol ekonomiaren osasunaren funtsezko alderdia izaten hasi da. Bestalde, garrantzitsua da hartzaillei urrunetik kirol gertaeretara iristeko aukera bermatzea, EBko lurraldeko mugaz gaindiko kirol gertaerei dagokienez.*

Liburu Zuriaren beste atal batean, zera adierazten da: “*Kirol sektorearen eta komunikabideen (telebista, bereziki) arteko harremani dagozkien kontuek garrantzi erabakigarria hartu dute Europan zabalkunde eskubideak lehen dirubide bilakatu denez gero. Kirol gertaeren zabalkunde eskubideak, beren aldetik, eduki iturri erabakigarri dira komunikabideetako operadore askorentzat*”.

Kirol profesionalaren arloko beste eztabaidagai bat zabalkunde-eskubideen negoziazioaren formatea izan zen: banakakoa, taldekakoa, hibridoa; libreki negoziatutakoa, legez ezarria edo lehiaren agintariak arautua.

- Banakako negoziazioa, talde bisitariak emanaldirako baiezkua eman behar izan gabe (hareako eskubidea). Eredu horren arabera, futbol-talde bakoitzak txapelketa jakin batean etxean jokatzeko dituen partiden eskubideak saltzen ditu, eskubide horien titularra den heinean.
- Eskubideen salmenta zentralizatua: salmenta-puntu bakarra dago, taldeek txapelketak antolatzen dituzten sozietatei (ligak eta federazio nazionalak, edo UEFA) ematen baitiete haiek saltzeko agindua, eta sozietate horiek, beren kabuz edo hirugarrenen bitartez, saldu egiten baitituzte denboraldi jakin baterako; diru-sarrerak horretarako ezartzen den banaketa-mekanismoaren arabera banatzen dira. Horixe da gaur egun kontinente mailako txapelketa nagusietan erabiltzen den sistema, bai nazioarte mailakoetan (UEFA txapelketaren azken bueltak), bai etxekoak (liga ingelesa, alemana, frantsesa eta, laster indarrean sartzekoa den legedi berriaren ostean, italiarra).
- Espainiaren kasuan, banakako negoziazio-eredua existitzen da, baina baldintza gehigarri bat ezartzen da: LFPko taldeek beren buruari ezarri dioten betebeharra, partida baten emanaldirako talde bisitariaren baimena izatekoa.

Espainiako Estatuan, eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren arabera, lehiaren eragin kaltegarria duten zenbait efektu sortzen dira; izan ere, eskubideen erosleek partiden emanaldien truke ordaintzen duten prezioa igotzen dute, batetik, eta eskubideen negoziazioan monopolizazioa gerta dadin errazten dute, bestetik. Bi taldeen baietza izan behar izateak berekin dakar erosle batek ustia ditzakeen partiden kopurua geometrikoki handitzea, beste talde batzuen eskubideak metatu ahala, guztizkora iritsi arte, behin eskubide guztiak kontuan hartu direnean. Eskubideak saltzen dituzten

¹ COM (2007), 391 amaiera 2007.07.11



taldeetan horrek izan dezakeen eraginaren kalterik gabe, testuinguru horrek interesaturik egon litezkeen eragileak merkatura sar daitezzen eragozten du, eta zorrerik handiena duen eroslea laguntzen.

D) Lehia Defendatzeko Legea aplikatzeak dakartzan berrikuntza guztien kanpo-komunikaziorako politika aktiboa.

LDEAk, Euskadiko lehiaren agintaria den neurrian, gizarte-eragile guztiei eta gizarteari oro har LDLa aplikatzearen ondoriozko berrikuntza guztien berri emateko ardura du.

Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak aldaketa handiak egin ditu lehiaren defentsarako Estatuko organoen osieran eta horien eginkizunen banaketan (Lehiaren Batzorde Nazionala sortu da, Estatuan eskumena duen agintaritzak bakarra eta orain arte lehiaren defentsarako Zerbitzu eta Auzitegi izenez ezagutzen zirenak batzen dituen), batetik, eta lehia murrizten duten jokabideen aurka egiteko aplikatu daitezkeen prozeduren erregulazioan, bestetik. Era berean, garrantzi berezia eman zaio lehia sustatzeko zereginari, hala nola txostenak, azterlanak eta gomendioak landuz.

Aldaketa horiek guztiak otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuan, Lehiaren Defentsarako Araudia onartzen duenean, jaso dira.

E) Enpresen, kontsumitzaileen, administrazio publikoen artean eta oro har gizartearen lehiaren kultura sustatzea.

LDEAk zerbitzu publikorako bokazio argia du sortu zenetik, eta egiteko zehatza: lehiaren kultura sustatzea eta eragile publikoek eta pribatuek errespetatu dezaten bermatzea, Euskadiren hazkunde ekonomikoari laguntzeko, enpresa eta hiritar guztien onerako.

Auzitegiaren helburu estrategikoetako bat lehiaren kultura zabaltzea da, eragile guztiek denononarako faktoretzat jo dezaten. Konfiantza lehentasunezko balioa da, Auzitegiaren jokaera markatzen duena, eta gizarte-eragile guztiekin harremanak, akordioak eta erlazio-bideak izatea errazten duena.

2009ko ekitaldian zehar, LDEAk berrogei alde biko (40) bilera egin ditu, honako arloetako enpresa, instituzio eta erakundeekin:

- Kontsumitzaileen elkarteak.
- Kirol-zerbitzuak.
- Telekomunikazioak
- Unibertsitateak.
- Merkatarien elkarteak.
- Merkataritza-ganberak.
- Banaketa.
- Sindikatuak.



- Aholkularitzak.
- Arautzaileak.
- Profesionalen elkargoak.
- Farmazia.
- Garraioak.

Aipamen berezia merezi dute LDEAren eta Sektore Publikoaren arteko topaketek; haietan Justizia, Garraioak, Kirolak eta Merkataritza arloak landu dira, besteak beste.

LDEZren eta LDEAren artean ere zenbait koordinazio-bilera egin dira, biei dagozkien gaiak lantzeko.

4. HELBURUA. GAIAN ADITUA DEN ERAKUNDE GISAKO AINTZATESPENA SENDOTZEA.

A) Ezagutza sustatzea eta lehiaren defentsarekiko interesa indartzea.

Ezagutza sustatzeko eta lehiaren defentsarekiko interesa indartzeko helburu hori lortzeko, lehiaren defentsari buruzko ikerlanak, eztabaida-paperak eta lan-dokumentuak egingo dira, erakunde akademiko nazional, europar eta nazioartekoekin batera lankidetzan.

Bereziki aipatzekoak dira:

-“Lehiaren defentsa Euskadin”.

“Eguneroko kontsumo ondasunen banaketa: lehia, oligopolioa eta isilpeko kolusioa”.

-Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 legearen erreforma.

Argitalpen horien nondik norakoa, labur-labur:

Erakunde honek burutzen dituen egitekoak gehiago ezagutarazteko, “**Lehiaren defentsa Euskadin**” izeneko artikulua argitaratu zen *Euronews* aldizkariaren 471 zenbakian. Artikulu horretan jasotzen da ezen, zehapen-egitekoaz gain, LDEAk dibulgazio-, kontsulta- eta babes-egitekoak ere burutzen dituela, lehiaren sustatzailea (advocacy) den heinean.

Horretaz gain, LDEAren egitekoak aipatzen dira, labur. Lehenik eta behin, LDEAk lehiaren araudia zabaltzeko eta lehia prebentzio-estrategia gisa sustatzeko kanpainak burutzen ditu; bigarrenik, ofiziozko txostenak egiten ditu, Eusko Legebiltzarrak, herri-administrazioek eta euskal erakunde sozio-ekonomikoei hala eskatuta, lehiaren defentsarekin zerikusia duten gaien buruz (zehazki, LDEAk aginduzko adierazpenak egin behar ditu merkataritza-gune handien irekiera, aldaketa eta titulartasun-aldaketei buruz); hirugarrenik, arau-txostenak egiten ditu, eta arauak edo herri-administrazioaren egintzak aldatzeko edo kentzeko proposa dezake, baita laguntza publikoei buruzkoa ere, botere publikoen eskutiko lehiaren murriztapenak saihesteko.



“Eguneroko kontsumo ondasunen banaketa: lehia, oligopolioa eta isilpeko kolusioa” ikerlana, LDEAaren barruan egina.

Azken urte hauetan txikizkako banaketaren kontzentrazio gero eta handiagoak eta orobat kontzentrazio horrek eguneroko kontsumo-ondasunen (behar-beharrezko produktuen) prezioetan eta hornitzaileekiko merkataritza-harremanetan izan duen eraginak eztabaida bizia piztu du herrialde askotan, eta esku-hartze publikoa handiagoa izateko eskaera ekarri du.

Testuinguru horretan, LDEAk 2009ko apirilean ikerlan hau argitaratu zuen, honako asmo hau zuelarik: oligopolio kolusiboak dauden merkatuetako nagusitasunezko egoera kontzeptu juridikoaren aplikazioa argitzea, txikizkako banaketaren merkatu espainolean oligopolio kolusiborik baden egiaztatzea, eta kontsumitzaileen onerako lehia handiagoa sutatuko luketen konponbideak proposatzea, beharrekoa balitz.

LDEAk Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen erreformari buruzko ikerlan bat aurreikusi du. Ikerlan horren helburua lehiaren defentsarako sistema espainol orokorrari LBNren eta lehiaren agintari autonomikoen arteko koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak hobetuko dituen lege-proiektu baterako proposamena eskaintzea da.

Europako Erkidegoko sistema ez bezala, Espainiako sistema eskumen eskusiboen existentzian oinarritzen da, eta irizpide mugatzaile nagusia jokabideen efektuen kokapen geografikoa da: Organo autonomiko bakoitzak dagokion autonomia-erkidegoan lehiaren aurkako efektuak eragiten dituzten jokabideak ezagutzeko eskumena du, eta Estatu mailako organoek gainerako kasuetan dute eskumena.

Uztailaren 17ko 16/1989 Legearen erreformak, uztailaren 3ko 15/2007 Legean islatu zenak, ez zituen arautu eta lehiaren defentsarako estatu mailako eta autonomia mailako erakundeen arteko eskumenen banaketa eta lankidetzeta; aitzitik, 1/2002 Legean jasotzen dira horiek. Koordinaziorako Lege horrek zentzurik ez du LDLtik kanpo, are gehiago eskumenen arloan hiru hutsune handi dituzenez: konexio-puntuak, lehiaren erkidegoko zuzenbidearen aplikazioa eta kontzentrazioen kontrola.

1/2002 Legearen arabera, enpresa-jokabidearen efektuak autonomiaren eremua gaituzten bada, organo zentralari dagokio eskumena; hala ez bada, berriz, organo autonomikoari dagokio. Alternatiba gisa, 1/2002 Legeak eskumena nolahi ere dela organo zentralari dagokion kasu zenbait zerrendatzen ditu. Lehen irizpidea hain da anbigua ezen arbitrariotasunetik hurbil dago, eta ziurgabetasun juridiko oso handia sor diezaieke, hala, enpresei zein lehiaren organoei. Zehazki, eskumen falta izango da organo autonomikoen edozein ebazpenen aurka eta organo zentralaren ebazpen askotxoren aurka aurkezten den errekurtsio ooren lehen argudioa.

Kontratazio horren bitartez, zenbait ikuspuntutatik egin nahi da analisisia:

- Dagoeneko existitzen diren konexio-puntuak, eskumenak banatzeko tresna gisa.



- Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean gerta daitezkeen gatazkak konpontzeko prozedurak eta irtenbideak.
- Europar Batasunaren eta Estatu kideen artean gerta daitezkeen gatazkak konpontzeko prozedurak eta irtenbideak.
- Alemaniako Errepublika Federalean Federazioaren eta Länder-en artean gerta daitezkeen gatazkak konpontzeko prozedurak eta irtenbideak.

Era berean, **lau lan-talde** eratu dira Estatuko lehiaren agintarien artean, Lehiaren Batzorde Nazionalak koordinatuak, arlo hauei dagokienez: Laguntza publikoak, koordinaziorako 1/2002 Legearen funtzionamendua, lehiaren defentsan eskudunak diren organoen lankidetzarako sarea (REC), eta lehiaren sustapena.

B) Mintegi teknikoak.

Mintegi teknikoak, aldirokoak zein noizean behingoak, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia ezagutzera emateko modu bat dira, bai eta aditua den erakunde gisa jokatzekoa ere, lehiaren defentsari buruzko ezagutzak helarazi ahal izateko. Mintegi hauek antolatuta dira:

Jarraian, LDEAren parte-hartzea izan duten zenbait mintegi eta jardunaldi aipatzen dira:

- **“Laguntza publikoak kontrolatzeko politika, ekonomia- eta finantza-krisiaren aurrean”** mintegia, Ekonomisten Euskal Elkargoarekin batera antolatua; Elkargoaren egoitzan egin zen, eta Europako Batzordeko Lehiaren Zuzendaritza Orokorren Laguntza Publikoen Unitate Buruak parte hartu zuten bertan.

- Lehiaren Defentsarako Espainiako Elkartearen (AEDC) ikas-jardunaldia; bertan **“Lehiaren arloko espedienteak ebazteko metodo berri bat: transakzio-akordioak”** gaia jorratu zen. Jardunaldi horretan LDEAko Lehendakariak hitzaldi bat eman zuen, espedienteak ebazteko jardunbide berritzaile bat aurkeztuz: 03/2008 Asfaltos-Asfaltoak ebazpena. Jardunaldi horretan lehiaren munduarekin zerikusia duten abokatuak parte hartu zuten, eta orobat Autorité de la Concurrence delakoaren kideek, Europako Batzordeko Lehiaren Zuzendaritza Orokorren Kartelen Zuzendaritzaren buruak, eta LBNren lehendakariak.

- **“XXI. mendeko merkataritzaren erronka: aldaketa berrietara egokitzea”** Urban Commerce jardunaldia. Bertan, LDEAk ponentzia bat eskaini izuen mahai-inguruan: **“Merkataritzaren erronkak XXI. mendeko hirian”**.

Jardunaldi hori Gasteizeko Udalak antolatu zuen. Bertan, aldaketa-garaietan hiriko merkataritzak urte egin beharreko ezin konta ahalako erronkak aztertu ziren, eta egoera ekonomikoa arrakastaz gainditzeko merkataritza-enpresek jarraitu beharreko estrategiez eztabaidatu zen. Beste aztergai batzuk ere izan ziren: kontsumitzailearen soslaia nola aldatu den, zer-nolako exijentziak dakartzan eta nola erakarri ditzakeen merkataritza txikiak horrelako kontsumitzaile berriak. Horretaz gain, merkataritza txikiak krisi-garaian beren negozioari eusteko edo are handitzeko eskura dituzten estrategiez ere gogoeta egin zen.



Laburbilduz, berrikuntza erabiltzeko moduari buruzko ideiak eskaini ziren, fidelizazio-estrategiei buruzkoak, kudeaketa- eta marketing-teknika berriei buruzkoak, salmenta-puntuaren formatu berriei buruzkoak... merkataritza-enpresen lehiakortasuna hobetzeko tresnei buruzkoak, azken finean.

- **“Krisirik futbolean?”** jardunaldia, LDEAk eta Ekonomisten Euskal Elkargoak lankidetzan antolatua. Bi hitzaldi jorratu ziren bertan:

“Futbola eta finantzak: izarren ligaren ekonomia”, José M^a Gay de Liébana y Saludas irakaslearen eskutik, zeinean ekonomiaren sektore horren benetako egoeraren laburpen bat egin baitzuen, futbol-taldeetatik eta dagozkien erregistroetatik lortutako ekonomia-datu objektiboak eskaini baitzituen, eta futbolaren sektorearen egoera ekonomikoak ekonomiaren ikuspuntutik aztertuta behea jo duela ondorioztatu baitzuen. Egoera hori zuzentzeko, futbolaren sektoreari Administrazioak eta beste sektore ekonomiko batzuetako araudiak ezartzen dituzten exigentziak aplikatzea proposatu zuen irakasleak, eta beti ere futbolaren sektorearen espezifikotasuna aitortuz.

- **“Futbol-talde profesionalen kudeaketa ekonomikoaren zergatia. Krisirik?”**, Futbol Profesionalaren Ligako Lehendakariordearen eskutik. Bertan, futbol profesionalaren sektore ekonomikoaren espezifikotasunaz jardun zuen, eta beste sektore ekonomiko batzuek ez dituzten mugak dituen merkatu atipiko gisa aurkeztu zuen. Interesgarritzat jo zuen ehun urtetik gorako zenbait talde badirela, et atalde horiek, helarazi nahi den ikuspuntua eta zailtasunak gorabehera, enplegua sortzen eta Herri Administrazioarekiko beren betebeharrak betetzen jarraitzen dutela. Hizlariak adierazi zuen, halaber, futbolaren sektorea Espainiako Estatuan Administrazioaren zigorra jasotzen duela, Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetan ematen zaion tratamenduarekin konparatuta.

Jardunaldia Bilbon egin zen. Ekonomisten Euskal Elkargoaren Lehendakariaren aurkezpen batez hasi zen, eta LDEAren Lehendakariaren hitzurre batek eman zion segida.

- **Udako ikastaroa, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea UPV-EHUrekin batera, Donostiako kanpusean. “Zerbitzuen sektorea lehiaren zuzenbidearen aurrean: erronkak eta desafioak”.**

2009ko ekainaren 29tik uztailaren 1era bitartean egin zen, eta erantzun egin zitzaion, horrela, lehiari buruzko biurteko udako ikastaro espezifiko bat egiteko asmoari, gai horren inguruko gogoetan eta ikerketan sakondu ahal izateko eta ikastaro hori Estatu mailan lehiaren zuzenbideari buruzko erreferentzia gisa mantendu ahal izateko.



Ekonomiaren gaur egungo egoeran erronka berriak sortzen dira, baita lehiaren agintarientzat ere; behar-beharrekoa da, hala ere, lehia askea merkatu-ekonomiaren printzipio gidari gisa mantentzea eta errespetatzea.

Zerbitzuen sektorea funtsezkoa da gure ekonomian, urteko fakturazioko kopuruak eta sortzen dituen lanpostuak ikusita. Zerbitzuen Europako Zuzentaraua indarrean sartu izanak beren barne-araudiaren parte garrantzitsu bat aldatzera behartzen ditu Europar Batasuneko Estatu kideak, zerbitzuen sektorearen europar merkatu baten gauzatzea laguntzeko. Lehiaren zuzenbideak egiteko garrantzitsua du, enpresek edo enpresa-asoziazioek merkatu horien funtzionamendu normala eragozteko burutzen dituzten kolusiozko edo abusuzko jokabideen ugalketa saihesteko funtsezko tresna baita.

Ikasturtean zehar, zerbitzuen sektoreari eragiten dioten arazoak aztertuz iren, bai ikuspuntu juridikotik, Estatuko araudia Zerbitzuen Europako Zuzentaruari egokitzeari dagokionez, bai ikuspuntu praktikoago batetik, garrantzi sozial eta ekonomiko handiko zenbait merkaturen funtzionamenduan oinarrituz, hala nola txikizkako banaketaren sektorea, zerbitzu profesionalen sektorea eta futbol profesionalaren sektorea, hau da, beren funtzionamendu-egituren bilakaera dela eta lehiari dagokionez mugatuta dauden sektoreak.

Profesionalen elkargoen sektorea Zerbitzuen Zuzentaruak gehien erasandakoetako bat da, egokitu behar baititu profesioetara sartzeko baldintzak arautzen dituzten estatutuetakoa araudia, helburua eta edukia.

Kirolaren sektorearen eta komunikabideen arteko harremanek garrantzi handia hartu dute, zabalkunde-eskubideak Europako kirol profesionalaren lehen dirubide bilakatu denez gero.

Ikastaroan parte hartu zuten hizlariak honako erakunde hauetako ordezkariak ziren, besteak beste: Europako Batzordea, Establezimendu Handien Asoziazio Nazionala, Banatzaileen Asoziazioa, Hornitzaileen Asoziazioa, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, Lehiaren Batzorde Nazionala, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia, Bartzelonako Unibertsitatea, Futboleko Espainiako Federazioaren Sarea eta Futbol Profesionaleko Liga Nazionala, bai eta hainbat bulegotako abokatuak eta lehiaren agintariak ere.

Ekitaldiari Carlos Aguirrek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailburuak, eman zion amaiera.

Horretaz gain, LDEAk beste mintegi tekniko batzuetan ere parte hartu du:

- “Futbolaren analisi ekonomikoa” izeneko mintegia, Gay de Liébana irakasleak Bartzelonan aurkeztua.
- Nekazaritzako Elikagaien Sektoreko Lehiari buruzko jardunaldia, Ingurumen Ministerioak Madrilen antolatua.



- Berrikuntzari buruzko Urteko Topaketak, UPV-EHUK Donostiako kanpusean antolatuak.
- Lehia-ikuskaritzei buruzko ikastaroa (LBN), Madrilen.

Aipamen berezia merezi du ikastaro horrek, Lehiaren Batzorde Nazionalak 2009ko abenduaren 1ean eta 2an antolatuak.

Ikasturte horren bitartez, Lehia Defendatzeko Legearen 40. artikuluan aurreikusten diren lehia-ikuskapenak prestatzeko eta lantzeko prestakuntza eskaini nahi zitzaaien lehiaren agintaritze nazionalari.

Ikasturtearen edizio hori autonomia-erkidegoetan lehiaren eskumena duten organoei zuzendua zen espezifikoki, eta LBNk ikuskapenak egiten lortutako esperientzia halako agintaritzei helaraztea zuen helburu osagarri. Era berean, lehiaren agintaritzek egin beharreko lehia-ikuskaritzetan ahal den neurrian prozedura eta irizpide komunak ezartzeko asmoa zuen, ikuskapen horien eraginkortasuna eta ikuskatuen bermeak hobetzeko.

Ikastaroa bi zatitan antolatu zen: Lehenengoan, legearen ikuspuntutiko formazioa eskaintzen da, eta ikuskatzaileen ahalmena keta ikuskatuen betebeharrak aztertuz iren, besteak beste. Bigarrean, ikuskapen batean teknologiarri dagokionez jarraitu beharreko lan-prozedura deskribatu zen.

C) Formazio-ikastaroak, lehiaren agintariekin lankidetzan.

Europako Batzordeak, lehiaren defentsaren agintari gorena eta Lehiaren defentsarako Europako sistemaren erreferentzia nagusia izanik (bera baita Sistemaren funtzionamendu egokia zaintzen duena, bai eta lehiaren defentsarako sistemen arteko koordinazioa —Estatu kideen sistemetatik hasi eta sistema deszentralizatua duten Estatu kideetako, hala nola Alemaniako eta Espainiako, eskualdeetako agintariak arte— zaintzen duena ere), sareko lan bat ezartzen du, etengabeko doitzea eta lankidetzaz eskatzen dituen.

Ildo horri jarraituz, zenbait jarduera burutu dira ekitaldi honetan zehar:

- Lehiaren Defentsari buruzko III Jardunaldi Nazionalak.

2009ko ekainaren 18an eta 19an Lehiaren defentsari buruzko III. Jardunaldi Nazionalak egin ziren Valentzian, Comunitat Valencianako Lehiaren Defentsarako Auzitegiak antolaturik. Jardunaldi horietan “Lehiaren krisi ekonomiko eta politikoa” aztertu zen, zazpi mahai-ingururen bitartez:

- 1) Garraioaren merkatua (Erkidegoko 1370/2007 araudia indarrean sartzea).



- 2) Merkataritza-banaketaren merkatua (araudi autonomikoa 2006/123/EB Zuzentaraura egokitzea).
- 3) Energiaren merkatua, ikuspuntu autonomikotik.
- 4) Telekomunikazioen eta informazio-gizartearen merkatua.
- 5) Lehiaren agintaritza autonomikoen egoera eta etorkizuna.
- 6) Kontratazio publikoa eta lehiaren politika (Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria).

Lehiaren defentsarako Euskal Auzitegiko Lehendakariak hitzaldi bat eman zuen bigarren mahai-inguruan, Merkataritza-banaketaren Merkatuaren gaiaz.

- Lehiaren sustapenari eta defentsari buruzko jardunaldia.

Jardunaldi horren bitartez, Extremadurako Lehiaren defentsarako Auzitegiak sustapen-lana indartu nahi izan du, gai garrantzitsu horri buruz iritzirako eta eztabaidarako bide berriak irekiz, haren defentsa hobetzen lagunduz eta, azken batean, kohesio ekonomiko eta sozial handiagoa bultzatuz.

Lehia garapen ekonomikoaren eta sozialaren zutabeetako bat zela adierazi zen, bai eta berrikuntza, aurrerapen teknologikoa eta ekoizpen-bitarteko eraginkorrageoen bilaketa sustatzeko estimulu nagusietako bat zela ere, eta adoretu egin ziren, horrela, eragile ekonomikoak, beren produktuak eta zerbitzuak kalitate handiagoz eta kostu txikiagoz sor ditzaten.

Horrela ulertuta, enpresen arteko lehia askeak ukaezinezko efektu onuragarria du herritar guztiengan, enpresok eskaintzen dituzten produktuen eta zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaile diren heinean. Efektu onuragarri hori beren nahi eta beharren arabera libreki hautatzeko aukeran gauzatzen da; gainera, produktu edo zerbitzuaren prezioaren eta haren kalitatearen arteko erlazio onena aintzat hartuta aukeratzea ahalbidetzen die.

5. HELBURUA. BESTE AGINTARITZA NAZIONAL, EUROPAR ETA NAZIOARTEKOEKIKO HARREMANAK SENDOTZEA.

A) Estatuko lehiaren agintariekiko lankidetzaren eta koordinazio-harremanaren eta mekanismoak.

Bere jardunaren hasieratik, LDEA lehiaren agintaritza autonomikoen eta Estatuko agintaritzen (LDA eta LDZ zirenak) arteko koordinazio-bileren sustatzailea izan



zen, eta bilera horietako lehenaren anfitrioi aizan zen, Bilbon 2006ko maiatzean egin zenarena.

Helburu horren bitartez, lehiaren agintaritzekiko eta organoekiko koordinazio- eta lankidetzaz-harreman eta mekanismoak sendotu nahi dira, hala nola LBN, Ikerketa Zuzendaritza, Lehiaren Batzorde eta lehiaren agintaritza autonomikoekiko harremanak.

1.- Lehiaren defentsan eskudunak diren organoen lankidetzarako sarea (REC).

Lehiaren Defentsarako Batzordeak (LDB), Estatuko Administrazio Orokorraren eta autonomia erkidegoen arteko parte-hartze eta lankidetzarako organoa den heinean, honako eginkizun hauek ditu, besteak beste: administrazioen lehiaren politikaren aldizkako segimendua egitea; informazio-trukea sustatzea; ikerlanak egin eta argitara daitezkeen sustatzea, administrazioek lehiaren defentsaren araudia aplikatzean jarraitzen dituzten irizpideak agerrarazteko eta, beharrezkoa balitz, irizpide horiek uniformeak izateko beharra agerrarazteko.

Aipamen gisa, hona hemen LDEAk ekitaldi honetan egin dituen parte-hartzeak:

LEHIAREN DEFENTSARAKO BATZORDEA

Abenduaren 18an Lehiaren defentsarako Euskal Auzitegiak Lehiaren Defentsarako Batzordearen Urteko Osoko Bilkuran parte hartu zuen, LBNren egoitzan.

Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 5. artikuluan 1. idatz-zatian jasotzen denez, Lehiaren Defentsarako Batzordea Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaz, koordinazio eta informaziorako organoa da, lehiaren inguruko indarreko legedia uniformeki aplikatzea dadila sustatzeko.

Bere egitekoen artean, merkatuetako lehiari buruzko informazio garrantzitsuaren trukea dago, eta orobat Legea aplikatzean behar bezalako koordinazioa lortzeko irizpideei buruzko eztabaida sortzea, lehiaren defentsaren inguruko legediaren aplikazio uniformea lortzeko asmo nagusiaz.

Aurtengo abenduan LDEAk urteko Batzorde horretan parte hartu zuen. Bileran zehar, LBNko Lehendakariak autonomia-erkidegoetan 2009an zehar lehiaren defentsaren inguruan burututako jardueren balantzea egin zuen, 2010-2012 Plan Estrategikoa aurkeztu zen, eta urtean zehar antolatutako lan-taldeek ateratako ondorioen laburpena egin zen.

LDEAk 2009an zehar burututako egintza aipagarrienak azaldu zituen labur.

Bestalde, REC abian jarri zen, administrazioetako organo eskudun guztien arteko koordinazio arin eta iraunkorrerako espazio komun bat eratzeko asmoz.



RECen garapenerako Circa datu-basea hautatu zen, lehiaren agintaritzen arteko baliabideen eta dokumentuen baterako erabilerarako ezinbestekoak diren segurtasun-, egokikortasun- eta bizkortasun-beharrei erantzuten dielako.

REC tresna erabilgarria da informazio-trukerako eta, beraz, lehiaren agintaritzen arteko koordinaziorako.

2009an zehar, Circa datu-basearen inplementazioa eta erabilera finkatu dira.

2.- Estatuko lehiaren agintaritza zenbaitekiko koordinazio-bilerak, 2009an zehar:

- Agintaritza autonomikoen eta Lehiaren Defentsarako Andaluziako agentziaren bilera.

Besteak beste, lehiaren agintaritzek eredu gisa jarraitu beharreko zenbait jardunbideren analisi zehatza egin zen.

- LDEAren eta Ikerketa Zuzendaritzaren arteko **aldebiko zenbait bilera**, LBNren egoitzan, Madrilen. Irekitako espedienteen inguruko koordinazio-bilerak, eta bi erakundeen arteko lankidetzarako zenbait akordio-proposamen.

B) Jardunaldiak, ikastaroak eta mintegiak.

Jardunaldiak, ikastaroak eta lan-mintegiak antolatzea lehiaren organoetako langileek beren egitekoak zuzentasunez bete ditzaten beharrezkoa duten formazioari laguntzeko metodoetako bat da.

- **“Zehapen-prozedura: Isunak” jardunaldia**, Garrigues bulegoak antolatua.

- **Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen aplikazioaren balantzea egiteko urteko jardunaldia.**

Lehiaren inguruko Zuzenbidearen Espainiako Asoziazioak, 15/2007 Legearen aplikazioaren lehen urteurrena zela-eta, jardunaldi bat antolatu zuen 2009ko ekainaren 25ean. Jardunaldi hartan LDEAk parte hartu zuen, bere Lehendakariaren bitartez, zeinak autonomia-erkidegoetako lehiaren agintaritzek Lege horren aplikazioan izan duten egitekoa aztertu baitzuen.

C) Lankidetzak-akordioak.



Esperientzia zabala duten lehiaren defentsaren erakundeekiko lankidetzak eta elkarlan-akordioak ahalbidetzea lehentasunezko helburu aizan da hasieratik LDEarentzat. Azken ekitaldi honetan zehar, Frantziako Estatuko lehiaren agintaritzarekin (Autorité de la Concurrence) eta Lehiaren Batzorde Nazionalarekin (LBN) harremanak izan dira eta dokumentuak trukatu dira haiekin, laster lankidetzak teknikorako akordioak ekarri ahal izango dituztenak.

Lankidetzak teknikorako akordio horiek erraztu egiten dute denboran zehar sendotu diren eta gure lehia-ingurunean aplikatzeko interesgarriak izan daitezkeen jardunbideen ezagutza eta aplikazioa. Erraztu egiten dituzte, halaber, teknikarien trukaketa eta lehiaren zuzenbidearen eta ekonomiaren zenbait alderdiri buruzko ikastaro praktikoa eta trebakuntzak gauzatu ahal izatea.

Frantziako Estatuko lehiaren agintaritzarekin (Le Conseil de la Concurrence) lankidetzak teknikoak gauzatzeko akordio-proposamena.

Frantziako lehiaren agintaritza edo Autorité de la Concurrence ordenantza bidez eratu zen 1986ko abenduaren 1ean, eta haren xedapenak 2000. urteko Merkataritza Kodearen IV. liburuan jaso ziren. Kontseiluak aurreko Lehiaren Batzordea, 1977an sortutakoa, ordezkatu zuen, zeina, era berean, 1953ko abuztuaren 9an dekretu bidez sortutako Akordioaren eta Nagusitasunezko Egoeren Batzorde Teknikoaren ondorengoa izan baitzen. Estatuaren izenean diharduen administrazio-organoa da, eta Gobernutik independenteak diren ahalmen errealek ditu lehiaren inguruko zuzenbidearen aplikazioan Frantziako Errepublikako lurralde osoan.

LDEAK, akordio horien bitartez, oro har, lankidetzak eta truke-proiektuak ezarri nahi ditu merkatuetako lehia bideragarriaren zaintza, babes eta sustapenaren arloan, berdintasunean, elkarrekikotasunean eta komuneko onuran oinarrituta.

Akordio horiei esker lortu nahi diren **helburuak** honako hauek dira:

- + Erakunde laguntzaileen lan-sistemak hobetzeko metodoei buruzko ezagutza lortzea.
- + Adituen sareak sortzea.
- + Zenbait arlo sektorialetan lankidetzarako lan-planak egitea.
- + Mintegiak antolatzea, esperientziak trukatzeko.
- + Esperientziak helarazteko tresnak diseinatzea eta sortzea.

Lankidetzak-arloak honako hauek lirateke:



- * Formazioa.
- * Sektore ekonomikoei eta araudi- eta jurisprudentzia-alderdiei buruzko informazio-trukea.
- * Bi aldeei interesgarriak zaizkien arloetako ezagutza-transferentziak.
- * Arlo sektorialetako lankidetzak.
- * Lan-tresnak diseinatzean elkarri laguntzea.
- * Arlo espezifikoetan ikerlanak egitea.

D) Lehiari buruzko foro europarretan eta nazioartekoetan parte hartzea.

Gauza aitortua da lehiaren defentsa, jatorrian “antitrust” zuzenbidea, kultura anglosaxoitik datorrigula. Enpresa-askatasuna zuzenbide iparramerikarraren oinarrian dagoen sistema ekonomikoaren osagaietako bat da, eta hartan sortzen da lehia askearen kontzeptua. Askatasun hori zuzenbide horrek mugatzen du, gainerako lehiakideak eta, haien bitartez, merkatu osoa babesteko. Lehiaren defentsak kontsumitzailea defendatzeko politikarekin bat egiten du. Demokrazia ekonomikoarekin edo herritarrarentzako zerbitzuarekin harremana du, kontsumitzaileek enpresa-askatasuna ezegoki gauzatzearen ondorioak jasan ditzaketan neurrian.

Lehiaren defentsa etengabe bilakatu da nazioarte mailan, Estatu Batuetan 1890eko uztailaren 2an Sherman Act izeneko Legea atera zenetik. Lege hori, 1889ko Canadian Combines Act-ekin batera, landa-inguruneko zein hiriko pobrezia industria-korporazioen aurka eginiko erreboltaren ondorioa da; industria-korporazio haiek, hain zuzen, merkataritza gehiena kontrolatzen zuten kolusio bidez eta beren botere ekonomikoaz abusatuz. Data horretatik aurrera, herrialde gehienak beren legedia ezartzen joan dira; arauok lehia murriz dezaketan akordioak eta nagusitasuneko posizioen abusu-egoerak saihesteko neurriak izaten dituzte.

Bere jardunaren hasieratik, LDEAren lehen helburuetako bat lehiaren agintaritzekin eta haiek biltzen dituzten erakundeekin kontaktuak eta harremanak ezartzea izan da, erakundeen arteko erlazioak garatzeko eta esperientziak trukatzeko. Alde horretatik, eta aurreko ekitaldietan egin duen bezala, LDEAk honako topaketa hauetan parte hartu du:

1.- Lehiaren Nazioarteko Sarearen VIII. Urteko Konferentzia: International Competition Network (ICN), Zurichen (Suitza), 2009ko ekainean.

Internacional Competition Network (ICN) mundu mailako asoziazio bat da, lehiaren agintariak osatua. Lehiaren zuzenbidean eta ekonomian adituak diren erakundeak eta agintariak biltzen ditu.



Lanerako, komunikaziorako eta harremanetarako beren metodoa sarea da; koordinazio etengabea dihardute, urtean zehar beren egitekoak kongresuetan garatzen dituzten lan-taldeen bitartez.

Urtero lehiaren defentsaren inguruko ikerlanik aurreratuenak eta tratamendu eta teknikarik landuenak aurkezten dira, jokabideen analisiari, lehia askea zaintzen laguntzeko prozedurak hobetzeari, kartelen eta nazioarteko kontzentrazio ekonomikoen kontrako borrokari dagokionez.

Alde batetik, eta ohikoa denez, konferentziak irauten duen hiru egunetan zehar, aurreko edizioaz geroztik eginiko aurrerapenak aztertu ziren, arloka:

- Lehiaren sustapena.
- Kontzentrazio ekonomikoak.
- Kartelak.
- Aldebakarreko jokabideak.
- Lehiaren politikaren inplementazioa.

Beste alde batetik, lehiaren agintaritza suitzarrak, Israelgo antitrust agintaritzarekin batera konferentzia hartako anfitrioiak, proiektu berezi bat aurkeztu zuen: “Lehiaren legea ekonomia txikietan, 2009ko txostena”. Txosten horren helburu nagusia lehiaren lege bat interpretatzeko, ezartzeko eta sortzeko ekonomia baten tamaina faktore garrantzitsua izateari buruz ICNko kideek dituzten iritzia aztertzea zen.

Txosten hori bost ataletan garatu zen:

“Ekonomia txikiak” nozioa, hala nola Suitza, Portugal, Israel, Grezia, potentzia handiekin konparatuta.

“Ekonomia txiki” horietako agintariek nabarmendu egin zuten efektu onuragarri garrantzitsuak dituela nazioarteko sare baten eta lehiaren defentsarako agentziei elkarreragitea ahalbidetzen dien jurisdikzio zabal baten parte izateak.

Lehiaren aurkako akordioei dagokienez, ez zen adostasunik izan ekonomia baten tamainak lehiaren legearen aplikazioan izan dezakeen eraginari buruz.

Beren iritzia emanez parte hartu zuten agintari zenbaitek adierazi zuten ez zela alderik ikusten kontzentrazio handiko merkatuetako kartelen jarduerarekin konparatuta. Beste batzuek beren ekonomietan lehiari eusteko faktore garrantzitsua iritzi zioten mugak irekitzeari. Agintari gehienek ustez, ez da arrazoirik merkatuaren tamainan oinarrituta murrizketa bertikalen aurka egiteko analisi-metodo ezberdinak erabiltzeko.

Nagusitasunezko egoeraren abusuari dagokionez, agintari gehienak bat etorri ziren adieraztean horren jarraipenerako analisisan ekonomiaren tamainak ez duela eraginik.

Agintari batzuek seinatu zuten lehiaren arlo jakin batzuek aldebakarreko jokabideetarako joera handiagoa agertzen dutela ekonomia txikietan kontzentrazio



handiagoko merkatuetan baino. Horrek lurralde horietan jurisdikzioa duten lehiaren agintariek kontrol estuagoa egin dezatela eskatzen du.

Kontzentrazio ekonomikoetan, agintari gehienek ustez, ekonomia handiagotik aplikatzekoak diren kontzentrazioen kontrolerako erregimenen arau substantibo berak aplikatu behar dira tamaina txikiko ekonomikoetan. Horren arrazoia da agintariek aplikatutako irizpide substantiboak kontzentrazio bat blokeatzea eta baldintzatzea egokia litzatekeen egoera guztietan aplikatzekoak direla ekonomia txikietan.

Analisiaren esparru orokorra.

Agintari batzuek kezka azaldu zuten, mahaigaineratzen zen auzi orokorrak, ekonomia lehenetsutako faktorea dela onartuz gero, lehiaren legearen aplikazio malguagoa dakarrelako. Era berean, adierazi zuten kontzentrazio ekonomiko handiko merkatu asko existitzen direla, eta merkataritza-politika irekiak garrantzitsuagoak direla ekonomia txikietan ekonomia kontzentratuetan baino, lehiaren politikari dagokionez.

2.- Lehiaren Argentinako Agintaritzaren Mintegia.

Uztailaren 8an “Lehiaren zuzenbidea eta krisi ekonomikoa. Zuzenbide espainiarraren eta argentinarraren ikuspuntua” mintegia egin zen Buenos Airesen.

Mintegi hori antolatzeaz Argentinako Lehiaren Defentsarako Batzorde Nazionala, Argentinako Ekonomia eta Herri Finantzen Ministerioa, Buenos Aireseko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Ekonomia eta Enpresa Zuzenbidearen Saila, eta Justizia & Merkaturia Fundazioa arduratu ziren.

Mintegi horretan LDEAko lehendakari den Javier Berasategi Torices jaunak parte hartu zuen, “Lehia askea versus laguntza publikoak krisi-egoera globalizatuan” hitzaldia emanez.

3.- LDEAren parte-hartzea Latinoamerikar eta Iberoamerikar Foroetan.

Lehiaren Latinoamerikar Foroa eta Iberoamerikar Foroa Txileko Santiagon egin zen, irailaren 9tik 11ra.

Latinoamerikar VII. Foroa irailaren 9an eta 10ean egin zen, eta Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) eta Garapenerako Banku Interamerikarraren (GBI) babesarekin izan zuen. Iberoamerikar Foroa irailaren 11n egin zen.

Foro hauetarako markatutako helburuak bi dira: iberoamerikar eskualdean lehiaren kultura handitzen laguntzea, eskualderako gaurkotetasun eta garrantzi handikoak diren lehiaren inguruko gaiez eztabaida eginez, eta esperientziak eta ezagutzak trukatzeko, bai



eskualdeko herrien arteko lankidetzaren bitartez, bai gai horretan garapen handiagoa duten herriekin elkarlana eginez, bereziki, ELGAko kide diren herriekin.

Parte-hartzaileen bertaratzea aprobetxatuz, irailaren 9an Lehiaren Egunaren Mintegia egin zen. Ekitaldi hori Fiskaltza Ekonomiko Nazionalak antolatu ohi du, herrian lehiaren kultura sustatzeko, eta edizio horretan lehiarekin zerikusia duten arloetako 500 pertsonaren parte-hartzea izan zuen. Orduko hartan gai nagusia “Kartelak” izan ziren, Txilen berriki onartu den lege baten ondorioz; lege horren arabera, ahalmen berri eta zabalagoak eskaintzen zaizkio Fiskaltzari, eta irudi berri bat sartzen da haren ordenamendu juridikoan, gure Errukitasun Programaren antzerakoa.

4.- “Lehiaren defentsa garapen-bidean dauden herrietan” nazioarteko mintegia.

Lehiaren defentsari buruzko mintegia Asuncionen (Paraguai) egin zen, 2009ko azaroaren 9tik 13ra. Paraguaiko Gobernuaren Industria eta Merkataritza Ministerioaren ekimenez antolatu zen, Nazio Batuen Erakundearekin (NBE) —Ekonomia eta Merkataritza Garapenerako Nazio Batuen Konferentziaren eta COMPAL (Latinoamerikan Lehiaren Zuzenbidea eta Politika Inplementatzeko Programa) programaren bitartez— eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiarekin (LDEA) batera lankidetzan. Mintegi horretara nazioarteko adituak, Brasileko lehiaren agintaritzetako (CADE) kideak eta Txileko Fiskaltza Ekonomiko Nazionaleko (FNE) kideak gonbidatu ziren.

Nazioarteko mintegi horrek funtsezko bi helburu bete ditu:

Paraguaiko agintariak sentsibilizatzea:

1.- Paraguaiko agintariei (Errepublikaren Lehendakaritza, industria eta Merkataritza Ministerioa, Legebiltzarra eta Senatua) eta hango eragile ekonomikoiei (enpresa txiki eta ertainetako enpresari-elkarteak, Unión Industrial Paraguaya-UIP eta merkataritza-ganberak) zuzenean aditzera ematea merkatu libreko sisteman lehia bideragarria existitzearen garrantzia eta lehiaren defentsarako lege bat onartuz arau-esparru egoki bat ezartzearen premia.

2.- Lehiaren defentsaren inguruko formazio-ikastaro oinarrizko bat ematea funtzionarioei, unibertsitateko irakasleei, ikasleei eta profesionalei, honako helburu hauekin:

- Merkatu askeko sistema batean berrikuntza, aurrerapen teknologikoa eta ekoizpen-bitarteko eraginkorren bilaketa bultzatzeko funtsezko faktore gisa lehiak duen lehentasunaz sentsibilizatzea eta zabalkundea egitea.

Sektore publiko, pribatu eta akademikoki profesionalei eta teknikariei lehiaren defentsaren inguruko kontzeptuei eta tresnei buruzko oinarrizko ezagutzak eskaintzea.

- Lehiaren defentsaren jardunbidea ezagutzen hasteko aukera ematea, beste herrialde batzuetan garatutako ezagutza teorikoak eta praktikoak helaraziz.



Lortutako emaitzak:

- 1.- Lehia Defendatzeko Lege berri bat onartzeko prozesua berraktibatzea, Biltzarrean zortzi urtez geldirik egon den proiektu bat berrabiarazita.
- 2.- Paraguaiko Gobernuaren, UNCTADen eta LDEAren arteko 2010erako lan-plana, eragile guztien artean adostutako lehiaren defentsaren lege-testu bat behin betikoz iristeko.



4. KAPITULUA. LDEA-REN 2009KO AURREKONTUA ETA HAREN EGIKARITZEA.

2009. urtean zehar, LDEAk 705.821 euroko aurrekontua izan du; egikaritzea 418.428 eurokoa izan da, kopuruaren %59,3 beraz. Gastu hori honako epigrafe hauetan desglosatu da:

2009KO AURREKONTUA:705.821,0 euro

- Pertsonaleko gastuak:427.265,0 euro
- Funtzionamendu-gastuak:278.556,0 euro

2009KO AURREKONTU-EGIKARITZEA: 418.428,5 euro (%59,3)

- Pertsonaleko gastuak:262.307,2 euro (%61,4)
- Funtzionamendu-gastuak:156.121,3 euro (%56,0)



HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIKO TXOSTENA

Txostena

Informe

**Lehiaren Defentsarako Euskal
Auzitegia**

**Tribunal Vasco de Defensa de la
Competencia**

2005-2007





Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

ERABAKIA, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoarena; erabaki honen bidez, «Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia, 2005-2007» txostena behin-betiko onetsi da, HKEEren Osokoaren 2009ko abenduaren 3ko bilkuran.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2009ko abenduaren 3an egindako bilkuran

ERABAKI DU:

«Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia, 2005-2007» txostena behin-betiko onestea, erabaki honen eranskin modura ageri dena.

HKEEren 1/1988 Legearen 13.2 atalak aurreikusten duena betez, txostenaren ondorioak dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzeko xedatzea.

II.- Ondorioak.

II.1.- Legezketasuna.

Sorrera:

1.- 81/2005 Dekretu bitartez LDEAren sorrera Izaera Orokorreko Xedapenak Garatzeko Prozedurari buruzko 8/2003 Legean zehaztutako izaera orokorreko xedapenak mamitzeko prozedura errespetatuz gauzatu da, dagozkion legezko izapideak jarraitu dira eta erabilitako arauzko mailak ez du legezketasunaren aldetik inongo eragozpenik; honela, bada, sortutako atalak 1/2002 Legearen eskakizunak betetzen ditu. Nolanahi dela ere, Lege bidez sortu izan balitz legebiltzarrean horren gaineko eztabaida bideratuko zukeen.

2.- LDEAren sorrera 2006ko martxoaren 1ean gauzatu da, hau da, 81/2005 Dekretuaren Xedapen Gehigarri Lehenengoan aurreikusitakoarekiko 7 hilabete inguruko atzerapenez, zeinak hiru hilabete ezarri baitzituen behin Dekretua abian jarri ondoren, 2005eko maiatzaren 7an gauzatu zena.

3.- LDEA eta LDEZk osatutako antolaketa eredu binakoa aukeratu izana, une hartan estatuko indarreko sistemari hobeto egokitzen zitzaiola esanez justifikatu zen, estatukoa aldatzen bazen, hau ere aldatzeko aukera aitortuz. Jada erakundea sortu zen unean bakarkako eredu ezartzea justifika lezaketen oinarriak ezarriak zeuden, erkidegoko ereduarekin lotuago, Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legea onestea ekarri zutenak, zeinak ordura arte estatu mailan bereizirik zeuden bi atalak besarkatzen dituen eredu bakarkakoa ezarri zuen.

4.- Ez dirudi arrazoizko LDEAren sorrera Dekretua aldarazten duen 36/2008 Dekretua onetsi zenean, 15/2007 Legearen aginduetara egokitzeko, binakako sistemari eustea, estatuko eredu berriarekin bat ez datorrena.

Langileria:

5.- Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Lanpostuen Zerrendak LDEAko administrari lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez zuzkitzea aurreikusten du.



Aipatutako lanpostua behin-betiko zuzkitu aurretik, plaza ia 3 hilabetetan zehar deialdi publikorik bideratu gabe zerbitzu eginkizun bidez bete zen; honek Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Agindua urratzen du, Euskal Herriko Administrazioan eta bere Erakunde Autonomoetan lanpostuak zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko prozedura arautzen duena.

6.- 2006ko apirilean gauzatutako 2006-2007ko Estrategia eta Kudeaketa Planak 2 teknikari eta 2 administrari kontratatzea aurreikusten du; ordea, 81/2005 Dekretuak agintzen du Ogasun eta Herri Administrazio Sailak emango dizkiola LDEAri beharrezko gerta dakizkion giza baliabideak, gaur egun egiaz gertatzen den egoera izaki.

7.- Eusko Jaurlaritzaren 2007ko ekitaldiko aurrekontu plantilak 2 lanpostu barne hartzen ditu LDEAren zerbitzuan; administrariarena bata, eta goi mailako teknikariarena, bestea, Lanpostuen Zerrendan (LZ) Ogasun eta Herri Administrazioako beste zerbitzu bateko baliran barne hartu direnak; izan ere, 81/2005 Dekretuaren arabera Ogasun Saila baita giza baliabideak eman behar dituen.

Ondasun erosketa eta zerbitzuak:

8.- LDEAren konfigurazioa dela-eta, APKLTBn kontratu txikientzat finkatutako kopuruak gairatu dituzten gastu bakarrak bidai gastuak izan dira, 21,90 mila eurokoak 2006an eta 26,30 mila eurokoak 2007an, enpresa bati APKLTBn finkatutako prozedurak bete gabe esleitutakoak, publizitate eta lehia printzipioak urratuz.

Beste batzuk:

9.- Ez da Lehiaren Defentsarako Erregistroa sortu, 81/2005 Dekretuaren 16. artikuluan agindutakoa; bertan ofizioz erregistratuko dira LDEAk baimendutako akordio, erabaki, gomendio eta arribideak eta guztiz edo partzialki debekatutako izendatu dituen haiek.

II.2.- Jarduera ekonomiko-finantzariora.

LDEAk ekonomia-aurrekontuko kudeaketa gaietan une oro Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia, Aurrekontu eta Ekonomia Kontrolerako Sailburuordetzaren Zuzendaritzari dagozkien eskumen berberak ditu, 81/2005 Dren 1. artikuluari jarraiki.

«Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia» 29. Zerbitzuaren baitan eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko «Ekonomia eta Gastu Publikoa» 6111 Aurrekontu Programaren baitan erregistratutako gastuak 2005, 2006 eta 2007an, honako hauek dira:

Mila euro

2005 2006 2007 Guztira

Langileen gastuak - 168,4 240,8 409,2

Funtzionamendu gastuak - 55,8 121,9 177,7

29 ZERBITZUA GUZTIRA - 224,2 362,7 586,9

Langile Gastuak beste zerb. batz. - 35,0 42,1 77,1

GUZTIRA - 259,2 404,8 664,0

Gastu hauetan ez dira barne hartzen egiazko inbertsioak, izan ere, beharrezko ekipamendua erostea (ordenagailuak, inprimagailua, fotokopiagailua, altzariak, e.a.) Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak kudeatzen baitu eta berari egozten baitaia aurrekontuan. Funtzionamendu gastuetan ere ez dira Zerbitzu



Zuzendaritzak egindako izaera orokorreko gastuak barne hartu. LDEAri esleitu edo ematen zaizkion ondasun hauen erosketa eta da gainerako erosketetatik bereizi Saileko gainerako zuzendaritzetatik eta honenbestez, txosten honetan ez da fiskalizazio-gai izan.

Sarreraren atalari dagokionez azpimarratu behar dugu LDEAri aztertutako aldian ez zaiola kontzeptu honen izenean inongo diru zenbatekorik aitortu. Honi dagokionez, 2007ko abenduaren 31n urte horretan izapidetutako bi zehapen espedienteak ebatzi dira eta «Helburuak betetzea» II.3 azalpen atalean zehaztu den moduan 2. Helburuari dagokiola, horietako espediente bat soilik ebatzi zen zehapen ekonomikoa jarrita. Nolanahi dela ere, eta aipatutako zehapena jaso zuen elkarteak errekurritzea erabaki zuenez gero, txosten hau idatzi dugun datan indarrean da ezarritako zehapenaren zuhurtziazko indargabetzea.

II.3.- Helburuen betetze maila.

Estrategia eta Kudeaketa Planak erreferentziazko estrategia esparrua ezartzen du, balore eta helburu estrategikoak dituen:

- Estrategia eta Kudeaketa Planaren baloreen baitan, LDEAk erkidegoko administrazioarekiko bere jarduera orotan eta eskumenen garapenean duen burujabetasuna barne hartzen da. Burujabetasun hau LDEAko 3 kideen izendapen eta araubidera eta LDEAko finkatutako antolamendura mugatzen da, ez baita Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura hierarkiakoaren atal. Nolanahi den ere, ez du nortasun juridiko propiorik eta honenbestez, ez du burujabetasunik giza eta gauzazko baliabide eta ekonomia-aurrekontuzko kudeaketari dagokionez.
- 2006 eta 2007ko ekitaldietarako helburu estrategikoei dagokienez, horiek kudeaketazko 7 helburu orokorretan zehazten dira. Horietako seitan ez dira ez adierazleak zehazten, ez eta ebaluazio metodoak ere. Planak gauzatu beharreko hainbat jarduera jasotzen ditu, orokorrean gauzatu direnak, honako salbuespen hauekin:
- 2 teknikari eta bi administrari kontratatzea aurreikusi zen eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak administrari bat soilik kontratatu du.
- LDEAren eragiketa prozesuen definizio eza. Nahiz LDEAren osokoak 2007an Barne Araubidearen Erregelamendua onetsi zuen, bere esku-hartzeen jokaera esparru izango dena, ez du Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren titularrak onetsi eta honenbestez, ez da EHAAan argitara eman. Erregelamendu hau 15/2007 Legearen edukiari egokituko zaio. Erregelamendua Osokoak mamitu behar izatea 81/2005 Dekretuaren 6.b artikulua agintzen du. Berebat, ez da prozeduren eskuliburua mamitu.
- Lehiaren defentsaren gaineko kontsultei erantzun emateko jarraitu beharreko inongo prozedurarik ez da ezarri.



HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN TXOSTENeko ONDORIOEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

II.- Ondorioak.

II.1.- Legezatasuna.

Langileak. 4. puntua.

Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Lanpostuen Zerrendak LDEAko administrari-lanpostua izendapen aske bidez ematea ezartzen du. Aipatutako lanpostua behin betiko eman aurretik, lanpostua ia 3 hilabetez zerbitzu-eginkizunen bidez bete zen deialdi publikoa egin gabe. Hortaz, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko agindua, hain zuzen ere, zerbitzu-eginkizunen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Erakunde Autonomoen lanpostuak emateko prozedura arautzen duena, ez zen bete.

LDEAren Alegazioak

Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 54. artikulua ezartzen du funtzionarioak, zerbitzu-eginkizunetan, dagozkien kidego eta eskalako lanpostuak betetzeko izendatu ahal izango direla, betiere, salbuespeneko kasuetan eta euren lanpostua gordeta.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, langileei buruzko ondorioetan adierazi du LDEAko administrari-lanpostua ia hiru hilabetez zerbitzu-eginkizunetan bete zela, eta, deialdi publikoa egin ez zenez, zerbitzu-eginkizunetan lanpostuak emateko prozedura arautzen duen agindua urratu zela. Hala ere, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi hau ez dator ondorio horrekin bat. Hona hemen arrazoiak:

1.- Ogasun eta Herri Administrazio Saileko sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Agindua, zerbitzu-eginkizunetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Erakunde Autonomoen lanpostuak emateko prozedura arautzen duenak, 2. artikuluan, lanpostuak emateko eremu objektiboa arautzen du. Artikulu horretako hirugarren puntuak ezartzen du aipatutako aginduaren 2.b idatz-zatian adierazitako maila duten lanpostuak (horien artean LDEAko administrari-lanpostua) urtebete baino gutxiagoko epean hutsik egongo direla aurreikusten bada, sailek aldi baterako eman ahal izango dituztela: bai agindu horren I. kapituluaren araututako prozedura jarraituta, bai zerbitzu-eginkizunen salbuespeneko esleipenez (aginduaren I. kapituluaren araututako prozedura bazter utzita) edo baita lan-politsetatik langileak aukeratuta ere.

Esku artean dugun kasuan zerbitzu-eginkizunen salbuespeneko esleipena egitea erabaki zen, aintzat hartuta izendapen aske bidez eman beharreko administrari-lanpostua zela eta urtebete baino gutxiagoko epean betetzea aurreikusten zela. Zerbitzu-eginkizunen esleipena 2006ko uztailaren 13an burutu zen, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzuen Zuzendariak emandako ebazpen bidez.

2.- Ondoren, 2006ko uztailaren 17an, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko sailburuak agindua eman zuen, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko administrari-lanpostua izendapen aske bidez emateko deialdi publikoaren berri emanez. Agindu hori 2006ko uztailaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (144. zk.). Hortaz, 4 egun igaro ziren zerbitzu-eginkizunen esleipena egin zenetik, izendapen aske bidez lanpostua emateko deialdi publikoa egin zen arte. Gero, Funtzio Publikoko zuzendariak, 2006ko urriaren 4ko ebazpen bidez, deialdia ebatzi zuen eta izendatutako pertsona hurrengo egunean hasi zen lanean.



3.- Aurrekoari dagokionez, ondoriozta daiteke Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko administrari-lanpostua (2867 kodea, 1. dotazioa) zerbitzu-eginkizunetan esleitu izana Ogasun eta Herri Administraziooko sailburuak 2006ko maiatzaren 30ean eman zuen aginduarekin bat egin dela. Agindu horrek zerbitzu-eginkizunetan EAEko Administrazio Orokorren eta Erakunde Autonomoen lanpostuak emateko prozedura arautzen du eta, zehazki, esleipena 2.3 artikuluko bigarren paragrafoaren arabera burutu da. Horrek EAEko Administrazio Orokorreko sailei zerbitzu-eginkizun baten salbuespeneko esleipena ahalbidetzen die, betiere, lanpostua urtebete baino gutxiagoko epean beteko ez dela aurreikusten bada, esku artean dugun lanpostuaren kasuan bezala (1. oharra dokumentuaren amaieran).

Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea. 7. puntua.

«LDEAren izaera dela-eta, kontratu txikientzat HAKLTBn ezarritako zenbatekoak gainditu dituzten gastu bakarrak, HAKLTBko prozedurak jarraitu gabe eta publizitatearen eta lehiaren printzipioak urratuz, enpresa bati esleitutako bidaien gastuak izan dira: 2006an 21,90 mila euro eta 2007an 26,30 mila euro.»

LDEAren alegazioak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa kontratatzeke araudiari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Erakunde Autonomoen obrak, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeke eskumen- eta antolaketa- araudia erregulatzen du, baina ez du erregulatzen Herri Administrazioen kontratuei buruzko legeak hirugarren artikuluan barne hartzen ez duen kontratu eta negozioei buruzko araudia.

Homologatutako ondasun eta zerbitzuen kontratazioko IV. kapituluak honakoa jasotzen du:

11. artikulua: homologa daitezkeen ondasun eta zerbitzuak estandarizatzea.

1.- idatz-zatia.- Ondasunak eta zerbitzuak homologatu ahal izango dira, beren izaeratik ohikoak badira, erakunde autonomo, sail edo unitate administratibo guztiek erabiltzen badituzte eta estandariza badaitezke.

2.- idatz-zatia.- Estandarizazioa da unitate administratiboek, sailek edo erakunde autonomoek ondasunak eta zerbitzuak behar bezala erabil ditzaten, hauek bete behar dituzten baldintza tekniko uniformeak eta oinarriak zehazteko akordioa.

LDEAk sortutako bidaien gastuei dagokienez, komeni da zehaztea 2007ko irailaren 19an onartu zela «Ogasun eta Herri Administrazio Sailarentzat eta Lehendakariordetza Sailarentzat bidaiak antolatzea» hizpide zuen kontratazio-espedita (B.K.K. Esp. zk.: C02/048/2007), 240.000 euroko lizitaziorako oinarritzko aurrekontuarekin eta esleitzeko prozedura gisa prozedura irekia eta lehiaketa bidezko esleipena ezarrita.

Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzuen zuzendariak 2008ko martxoaren 11ko akordioz kontratazio-espedita hori ebatzi zuen eta kontratu hori Viajes Iberia SA enpresari esleitu zion, fakturatutakoaren gainean dauden deskontuak eskaintzan jasotzen direlako.

Akordioa sinatu zen egunetik aurrera, LDEAko langileen bidai- eta ostatu-gastuak Zerbitzuen Zuzendaritzak kudeatzen ditu era zentralizatuan, eta, horretarako, aipatutako kontratuko klausula administratibo partikularren agirian jasotako irizpideak erabiltzen ditu, eta horiek aipatutako sailetako zuzendaritzetan ere aplikagarriak dira.



Egun hori baino lehen, bidaien kudeaketa modu deszentralizatuan egiten zen. Hau da, zuzendaritza bakoitzeko idazkaritzak autonomia osoa zeukan merkatuko edozein agentziarekin lan egiteko. Alde horretatik, LDEAk bere bidaiak Barceló agentziaren bidez kontratatzea erabaki zuen, merkatua aztertu ondoren, Barceló agentziak eskaintzen zuena zerbitzu azkarra, eraginkorra eta ekonomikoki arrazoizkoa zela ikusi zuelako. Izan ere, bidaien izapidea dela-eta kobratutako komisioen guztizko zenbatekoak argi adierazten du kontratatutako zerbitzuaren prezioa oso lehiakorra zela.

LDEAk argi ikusten du gardentasunaren, publikitatearen eta lehia askearen printzipioak errespetatu behar direla zerbitzu jakin bat kontratatzekeo garaian. Baina bere funtzioak burutzerakoan ezin du behar adinako aurrerapenaz ikusi ekitaldi zehatz batean bidaietara eta ostatura zuzenduko duen zenbateko zehatza zein izango den. LDEAko kideak eta langileak EAetik kanpo egiten diren bileretara joaten dira noizbehinka, estatuko eta nazioarteko bileretan eta lehiaren esparruko agintaritzen foroetan parte hartzeko eskatzen zaienean, eta gehienetan, deialdiak hilabete edo bi hilabete lehenago egiten dira. Hori dela eta, bilera horietan parte hartzea auzitegiko kideek eta langileek duten astiaren arabera da. Izan ere, 2006ko eta 2007ko bidaien gastuak 21,9 mila eta 26,3 mila eurokoak dira hurrenez hurren, eta bidaia-gastu moduan gehitutako zenbateko txikien emaitzak dira: txartela igortzearen gastua, txartelaren gastua eta, batzuetan, egonaldiaren kostua. Adibide gisa, banaka begiratuta, 2007an aurkitu dugun zenbatekorik handiena 1.802 eurokoa da.

Aurretik aipatutako zenbatekoak, fiskalizazioaren xede direnak, ez dira gastu bakarra - hala balitz kontratu bat beharko litzateke-, zenbateko txikien metaketa baizik.

Edonola ere, aurretik aipatu bezala, 2008tik aurrera, kontratazio-espeditentearen ebazpena eman ondoren eta bidaia-agentzia zehatz batekin kontratua sinatu ondoren, alderdi hau konponduta geratu da. Izan ere, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta Lehendakariordetza Saileko langileentzat, LDEA barne, bidaien antolaketa agentzia horrekin kudeatzen da, prezioekin eta zerbitzu homogeenekin.

1. oharra: Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak berak (LDEA) alegazioan adierazi duen moduan, administrari lanpostuaren zuzkidura salbuespeneko zerbitzu eginkizunaren moldea erabilita esleitu zen. Maiatzaren 30eko Aginduaren 2.3 artikulua agintzen du prozedura hori erabiltzen bada, egoki arrazoitua behar duela izan. Espedientean ez da arrazoitze hori jaso eta honenbestez, esleipena deialdi publikoaren prozedurari jarraiki egin behar zatekeen, merezimendu eta gaitasun printzipio konstituzionalen berme dena.